


eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

ZUZENBIDE
FAKULTATEA
FACULTAD
DE DERECHO

**GENERO-INDARKERIAREN BIKTIMA
BIKARIOAK DIREN SEME-ALABEN
HILKETEN ERREALITATE JURIDIKOA**

ZUZENBIDE GRADUA
2020-2021 Ikasturtea

EGILEA: Janire Egusquiza Gastañaga
ZUZENDARIA: Idoia Igartua Laraudogoitia

LABURPENA: Genero-indarkeriaren forma komisiboak aldatzen joan dira honen biktimei esleitutako babes juridikoa areagotu eta emakumeak eta familiak gizarte patriarkalean duten rola ere garatzen joan den heinean. Bilakaera honen ondorioetako bat, biktimizazio bikarioaren kopurua handiagotzea izan da. Izan ere, mota honetako biktimizazioa emakumeak erasotzailearekin zuen bikote-harremana bukatzea erabakitzerakoan gertatzen da. Hau da, emakumeak nahi ez zuen harreman sentimental bati amaiera ematerakoan. Azken finean, hirugarren elementu baten instrumentalizazioa erasotzaileak emakumearen gain zuen menpekotasunari eusteko duen bidea da. Bide honek gizarte patriarkalaren ideia zaharkitua mantentzeko aukera esleitzen baitio. Izan ere, antzinakotasunean zailtasun asko zeuden ezkontza bati amaiera emateko. Hortaz, zailtasun horiek nahiko ziren emakumearen menpekotasuna mantentzeko. Errealitate hori egiaztatuta, 2013 urtetik geroztik, Espainiako Berdintasun eta Genero-indarkeriaren aurkako Idazkaritza Nagusiak Espainiar estatuan genero-indarkeriaren ondorioz hildako adingabeen zenbatekoak bildu eta sistematizatu ditu.

HITZ-GAKOAK: Genero-indarkeria. Genero-indarkeriaren ondorioz hildako adingabeak. Biktima bikario. Haurren eta Nerabeen oinarrizko giza-eskubideak.

RESUMEN: Las formas comisivas para cometer la violencia de género han ido variando a medida que se implementa la protección y amparo jurídico a las víctimas de ésta e, incluso, a medida que el rol de las mujeres y la familia ha evolucionado en la sociedad patriarcal. Muestra de esta evolución es el aumento en la victimización vicaria. Este aumento se debe a la decisión de la mujer de terminar su relación sentimental con el maltratador. Esta ruptura supone el fin del control sobre la mujer y el maltratador se ve obligado a buscar diferentes formas de hacer perdurar su poder. Tales como la instrumentalización de los menores para dicho fin. En cuanto a esto último, la Secretaría General de Estado de Igualdad y Contra la Violencia de Género ha recogido y sistematizado desde 2013 el número de hijas e hijos que han sido asesinados a causa de violencia de género.

PALABRAS CLAVE: Violencia de género. Menores asesinados a causa de violencia de género. Víctima vicaria. Derechos fundamentales de niños y adolescentes.

AURKIBIDEA

I.	SARRERA.....	4
II.	SEME-ALABAK GENERO INDARKERIAREN BIKTIMA GISA.....	6
	A. Zuzenbidearen Teoria Feministaren ikuspegia: genero-indarkeria patriarkatuak emakumeen aurka erabiltzen duen indarkeriaren adierazpen maximo gisa.....	6
	B. Arazoaren errealitate sozialera hurbiltzea Espainian	8
	C. Biktimaren legezko kontzeptuaren bilakaeraren azterketa	10
	D. Analisi kuantitatiboa: datu estatistikoak	14
III.	GENERO-INDARKERIA ETA HAURTZAROKO ESKUBIDEAK: MARKO ARAUEMAILEA (NAZIOARTE, EUROPA ETA ESPAINIA MAILAN).....	23
	A. Nazioarte mailan dagoen araudiaren analisisa.....	23
	B. Europa mailan dagoen araudiaren analisisa.....	25
	C. Estatu mailan dagoen araudiaren analisisa.....	29
	1. Uztailak 22ko 8/2015 Lege Organikoa indarrean sartu aurretik.....	29
	2. Uztailak 22ko 8/2015 Lege Organikoa indarrean sartu ostean	30
IV.	JURISPRUDENTZIAN GENERO-INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN SEME-ALABEI EMAN ZAIEN TRATAERA.....	34
	A. Kasu esanguratsuren azterketa.....	34
	B. Aztertutako kasu praktikoen ondorioen azterketa.....	43
V.	ONDORIO OROKORRAK.....	47
VI.	BIBLIOGRAFIA ETA ITURRIAK.....	51
VII.	JURISPRUDENTZIA BIBLIOGRAFIA.....	58

I. SARRERA

Azken urteotan emakumeen aurka beraien bikotekide edo bikotekide ohiaren aldetik gauzatzen den indarkeria areagotuz joan da horrek suposatzen duen arazo sozialarekin batera. Baina zer da genero-indarkeria? Genero-indarkeriaren inguruan 2011n argitaratu zen Istanbulko Hitzarmen¹-eko 3. artikuluan ematen den definizioa aipagarriena da. Bertan, adiera desberdinak erabiltzen dira emakumeen aurka gauzatzen den indarkeriaren definizioak desberdintzeko: “emakumearen aurkako indarkeria”, “familia/etxeko indarkeria” eta “genero arrazoiengatik emakumeen aurka gauzatzen den indarkeria”. Halaber, gure gaiarekin zerikusia duen definizio osatuena emakumeen aurkako definizioaren inguruan ematen dena da (3 a) hizkian). Bertan, emakumeen oinarritzko giza eskubideen urraketarik nabariena eta emakumeen bereizkeria gauzatzeko tresna gisa definitzen da. Are gehiago, eraso hauen pizgarria genero arrazoiak izango dira.

Aurreko definizio horrekin harremanetan, genero-indarkeriaren definizioaren inguruan, Nazio Batuen Erakundeak (NBE, hemendik aurrera) 1993an Emakumeen Aurkako Indarkeria Desagerrarazteko egin zuen Adierazpeneko 1. artikuluan honako definizio hau eman zuen: “*”Violencia contra la mujer” se entiende todo acto de violencia basado en la pertenencia al sexo femenino que tenga o pueda tener como resultado un daño o sufrimiento físico, sexual o sicológico para la mujer, así como las amenazas de tales actos, la coacción o la privación arbitraria de la libertad, tanto si se producen en la vida pública como en la vida privada²”*”.

Azken finean, genero-indarkeriaren egileen helburua emakumeei kalte zehatza eragitea eta hauen aurka duten boterea denboran eta jarraikako eran mantentzea da. Mantentze hori dela eta, genero-indarkeria gauzatzeko forma komisiboak aldatzen joan dira denboran zehar: emakumearen isolamendua, abusu soziala, xantai emozionala, ingurumen-abusua, mehatxuak, indarkeria fisikoa, indarkeria psikologikoa, ekonomia-abusua edota sexu indarkeria. Honen harira, forma komisiboen aniztasun

¹ *Instrumento de ratificación del Convenio del Consejo de Europa sobre prevención y lucha contra la violencia contra la mujer y la violencia doméstica*, hecho en Estambul 11 de mayo de 2011 (2014), Estatuko Aldizkari Ofiziala, 137, 2014ko ekainak 6an, 42946-42976. URL helbidea: [https://www.boe.es/eli/es/ai/2011/05/11/\(1\)](https://www.boe.es/eli/es/ai/2011/05/11/(1))

² NBEn Batzorde Orokorrak emandako A/RES/48/104. 1993ko abenduak 20. *Declaración sobre la eliminación de la violencia contra la mujer*. URL helbidea: <https://www.acnur.org/fileadmin/Documentos/BDL/2002/1286.pdf?file=fileadmin/Documentos/BDL/2002/1286>

horren baitan, hirugarren bitarteko baten bidez gauzatutako genero-indarkeria dago. Mota honetako indarkeriaren biktimei “biktima bikario” deritzegu eta indarkeri psikologiko edota mehatxuen azpisailkapenaren barne aurkituko litzateke. Hots, genero-indarkeriaren alorrean hirugarren bitarteko hori familiako kideak, etxeko-animaliak eta abar izan daitezke.

Lan honetan, genero-indarkeria gauzatzeko instrumental gisa erabiltzen diren seme-alaben hilketetara mugatuko dugu gure azterlana. Esparru honetara mugatzearen arrazoiak ugariak dira. Alde batetik, adingabeen eskubideen urraketa hau - hilketa-adierazteko adierazpenen ugaritasuna daukagu arrazoi gisa. Are gehiago, urraketa hauen inguruan azken aldian egindako azterketa-lanak areagotzen joan dira errealitate honen inguruko kasuen kontzientzia handiagotzen joan den heinean. Eta beste alde batetik, badirudi genero-indarkeriaz mintzatzerakoan horren biktima zuzenak diren emakumeetaz soilik ari garela. Hori dela eta, ezinbestekoa da genero-indarkeriaren beste bikimetaz ere mintzatzea; hau da, genero-indarkeriaren biktima den emakumearen seme-alabetaz. Hau baita errealitate honi ikusgarritasuna emateko bide bakarra.

Azterlan hau gauzatzeko gai honetan beraien ikuspuntua eman duten egile desberdinen iritziak jasoko ditugu. Honetaz gain, genero-indarkeriaren ondorioz hiltzen dituzten seme-alaben errealitatea ezagutzeko erakunde desberdinek egindako txostenak aztertu eta erkatuko ditugu. Are gehiago, estatu, Europa zein nazioarte mailako araudia aztertuko dugu eta Espainian seme-alaben hilketa hauei azken urteotan emandako trataera jurisprudentzialarekin bukatuko dugu gure analisisa. Hortaz, lanaren egiturari dagokionez jarraituko dugun ibilbidea arlo teoriko batetik - seme-alabak genero-indarkeriaren biktima gisa- arlo praktikora - jurisprudentzian hilketa hauei azken urteotan eman zaien trataera - igarotzekoa izango da. Erdibidean haurren oinarrizko giza eskubideak jaso duen araudi desberdinaren azterketa eginez.

Aurretik aipatu dugun bezala, genero-indarkeriaz mintzatzerakoan emakumeetaz soilik ari garela dirudi. Hori dela eta, gai honetan egindako azterlanak eta datuen bilketak oso urriak dira. Zehatzago, Espainian gai honen inguruan aurrerapauso nabariak eman badira ere, ezin daiteke berdina sumatu Europa zein nazioarte mailan bildu daitekeen informazioaren inguruan. Izan ere, badaude errealitate honen inguruko daturik ematen ez duten herrialdeak. Are gehiago, Europa mailan badaude genero-indarkeriaren daturik eskaintzen ez duten herrialdeak edota informazio partziala

soilik jaso dutena - Europako Genero Berdintasunerako Institutuak 2019 urtean egindako azterlan³-an oinarriturik-. Daturik eskaintzen ez duten Europako herrialdeen artean Belgika, Bulgaria, Danimarka, Irlanda, Txipre edo Polonia - azken lau herrialde horietan ez da erasotzaile eta biktimaren arteko harremana kontuan hartzen- dira aipagarriak. Datuen urritasuna azaltzeko beste arrazoietakoa bat “biktima bikario” kontzeptua oso hedaturik ez egotea da. Hori dela eta, kontzeptu bateraturik ez izateak ere badauzka bere ondorioak. Horrenbestez, zailtasunak egon daitezke genero-indarkeriaren ondorioz hil dituzten seme-alaben zenbateko zehatzak ezagutzerakoan.

II. SEME-ALABAK GENERO INDARKERIAREN BIKTIMA GISA.

A. Zuzenbidearen Teoria Feministaren ikuspegia: genero-indarkeria patriarkatuak emakumeen aurka erabiltzen duen indarkeriaren adierazpen maximo gisa.

Atal honetan, genero-indarkeriaren biktima bikarioak teoria feministaren ikuspegitik aztertuko ditugu. Hau da, seme-alaben aurka gauzatzen den indarkeria patriarkatuak emakumeen aurka erabili izan duen tresna dela aztertuko dugu.

Feminismoaren historiak argi islatu du zer nolako ondorioak izan dituen munduko herrialde desberdinen artean genero-indarkeriaren legezko kontzeptu eta intzidentziaren inguruko datu bateraturik ez izateak. Honen ondoriorik azpimarragarriena, genero-indarkeriaren arazoa ikusezin bihurtzen dutela eta garrantzia kentzen diotela da. (CANET-BENAVENT eta MARTINEZ-MARTINEZ⁴) Azken finean, ordenamenduen artean legezko kontzeptu bateratu bat ez izateak genero-indarkeriaren errealitatea zein den ahaztera garamatza; hau da, emakumearen zapalkuntzan oinarritzen den egiturazko arazo bat da, nagusi den sistema indarrean mantentzeko ezinbestekoa dena, eta bere konponketarako baliabide tekniko zein politikoak beharrezkoak dira.

³ European Institute for Gender Equality (EIGE). (2019) Gender Statistics Database, National sources of survey and administrative data on gender-based violence. Maps. URL helbidea: https://eige.europa.eu/gender-statistics/dgs/indicator/genvio_statcap_gbv_nat_statcap/map

⁴ Canet-Benavent, E., eta Martínez-Martínez Lucia. (2019). *Reacción patriarcal contra los avances en materia de violencia machista*. *Búsqueda*, 6(23), 469.–469. <https://doi.org/10.21892/01239813.469>

Beraz, genero-indarkeriaren gaiaren baitan era berdintsu eta neutral batean ezartzen dira arauak? Eta nolako ondorioak izan ditzake bereizkeria honek genero-indarkeriaren biktima bikarioak diren

seme-alabetan? Galdera hauei erantzuteko, CAMPOS, BOSCH eta ARAGUREN⁵-en (2020) iritzia hartuko da abiapuntu gisa; zehatzago, genero-indarkeriaren ikuspuntu juridikoaren inguruko atalera mugatuko naiz.

Lehenik eta behin, abiapuntua emakume eta gizonen artean zuzenbidea era berdintsu batean aplikatzen ez dela da. Honek, zuzenbidearen “aplikazio objektiboan” behin eta berriz emakumeon aurkako bereizkeria errepikatzea dakar. Honen adibide argia, banaketa edo dibortzio baten ostean seme-alaben zaintza edo jagoletza erabakitzerakoan aurkitzen dugu. Izan ere, tratu txarren emaileak badaki “aitaren eskubideek” lehentasuna izango dutela bestelako eskubideen gainetik. Honek seme-alabak arrisku egoera batean jar ditzake “adingabearen babes gorena” aitarekin egotean eta bere nahiak betetzean islatzen dela ulertzen bada (VACCARO⁶). Azken honen inguruan, aurrerapauso garrantzitsuak ematen ari dira adingabe hauen babesgabetasun egoera hau desagerrarazteko. Honen adibide gisa, EH Bilduk Eusko Jaurlaritzan genero-indarkeriaren inguruko prozesu batean auziperatutako gurasoen partekatutako zaintza eta bisita eskubidea etetearen alde aurkeztu zuen lege proposamena daukagu⁷.

Sistema patriarkalera bueltatuz, honen genero-indarkeriaren biktima bikarioak diren seme-alabei dagokienez, “patriarkatu” kontzeptuaren definizio labur bat ematea beharrezkoa da: 70ko hamarkadan feminismoak sortu zuen kontzeptua da, emakumeak gizonen boterearen menpe egon direla eta daudela defendatzen duen botere sistema unibertsal eta antzinakoa. Patriarkatuko sistemaren pean gauzatzen den emakumeen aurkako indarkeriaren hedadura azken honek maite duen edo loturik dagoenera

⁵ Campos, A., Bosch, E. eta Araguren, J. *Berdintasunerako Politikak, Emakume eta Gizonen Berdintasunaren Masterra: Berdintasun Eragileak, Emakumezkoen Aurkako Indarkeria (5)*, Euskal Herriko Unibertsitatea.

⁶ Vaccaro, S. (2016) *Violencia Vicaria: Las hijas/as que son víctimas de la Violencia para dañar a sus madres*, TribunaFeminista, URL helbidea: <https://tribunafeminista.elplural.com/2016/03/violencia-vicaria-las-hijas-y-los-hijos-victimas-de-la-violencia-contrasus-madres/>

⁷ Gobernuko Batzordea. (2020) *Consideraciones para una reforma de la ley de custodia compartida* (Consejo de Gobierno 06-10-2020). euskadi.eus URL helbidea: <https://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/-/noticia/2020/consideraciones-reforma-ley-custodia-compartida-consejo-gobierno-06-10-2020/>

zabaltzen da. Izan ere, ideia horri jarraituz ulertu daiteke seme-alabak genero indarkeriaren biktima bikario gisa kalifikatzea.

Are gehiago, arlo judizialera bueltatuz, tratu txarren emailea den gizonak badaki bere ezkontide edo bikotekidearekiko legezko eskubiderik ez duela. Halaber, baditu bere seme-alaben aurkako eskubideak eta, horietaz baliatuko da seme-alaba horiek objektu gisa erabiltzeko emakumearen aurkako indarkeriarekin jarraitzeko (VACCARO). Azken honek badakielako emakumeak bere seme-alabak babesteko edozer egingo lukeela.

Laburbilduz, zera esan genezake: tratu txarren emaileak bere ustez bere jabetzakoa den emakumearen aurkako indarkeriarekin jarraitzeko aurkitu duen era alderdirik ahulenaren aurka joatea da; hau da, emakumearen seme-alaben aurka. Honela, legeek eta justiziak genero-indarkeriarekin jarraitzeko jartzen dituzten trabak gainditzen ditu.

B. Arazoaren errealitate sozialera hurbiltzea Espainian.

Genero indarkeriaren kontzeptua oso konplexua denez honen biktima zuzenak diren emakumeak barnebiltzeaz gain emakume hauen seme-alabak ere genero indarkeriaren biktima gisa ulertu daitezke.

Honekin harremanetan, NBEko Batzorde Nagusiak, 2006an egindako adingabeen kontrako indarkeriaren inguruko azterketan zera baieztatu zuen: “*La violencia dentro de la pareja hace aumentar el riesgo de violencia contra los niños en el seno de la familia*”⁸. Hortaz, argi dago mundu mailan egindako azterlan horren ondorioetako bat genero indarkeriaren eta adingabeen kontrako indarkeria zuzenki erlazionaturik daudela dela.

Espainiar Estatuan indarrean dagoen legeriari so eginez, Delituen Biktimak diren Estatutuak (apirilak 27ko 4/2015 Legea) bi biktima mota bereizten ditu: *biktima zuzenak (edo bikarioak) eta zeharkako biktimak*. Hala ere, argitu beharra dago, “biktima zuzen” kontzeptuaren baitan biktima bikarioak eta ez bikarioak barnebildu daitezkeela. Bien arteko desberdintasuna jarraian aztertuko dugu.

⁸ A/61/299 Txostena. 2006ko abuztuak 29. *Informe del experto independiente para el estudio de la violencia contra los niños de las Naciones Unidas*, NBEko Batzorde Orokorra, 14.-17. orr. URL helbidea: https://www.bienestaryproteccioninfantil.es/imagenes/tablaContenidos03SubSec/SG_violencestudy_A-61-299_ES.pdf

Hau horrela izanik, lan honen eremua genero-indarkeriaren biktima BIKARIOAK diren seme-alabetara mugatuko da. Hori dela eta, azterlan sakonago bat egingo dugu biktima mota honi buruz eta biktima zuzenak baina ez bikarioak direnekin dituzten desberdintasunak argituko ditugu.

Biktima bikarioak izango lirateke hirugarren pertsona bati kalte bat eragiteko bitarteko gisa erabiltzen diren pertsonak; hots, biktima instrumental gisa ere definitu genitzake. Azken finean, biktima nagusiaren aurkako bigarren mailako indarkeria izango litzateke. Biktima bikarioen azterketarekin jarraitu baino lehen, ñabardura bat egin behar da “biktima bikario” eta “filizidio”-en artean. Bigarren horretan, seme-alaben hilketak ematen da eta aitaren nahia horiek duten seme-alaba izaeragatik hiltzea da. Aldiz, seme-alaben hilketak bikarioetan ez da seme-alaba izatearen kontzientzia existitzen. Hau da, indarkeria bikarioan seme-alabak emakumea kaltetzeko objektu gisa ikusten dituzte gizonak. (VACCARO⁹)

Indarkeria bikarioaren ikuspuntu osatuago bat emateko, PERAL LÓPEZ-en¹⁰ iritzia hartuko dut ardatz gisa. Azken honek indarkeria bikarioaren definizioa ematerakoan, hirugarren bati kalte bat eragiteko asmoz gauzatzen den indarkeria gisa definitzen du. Baina, zer nolako jokaerak ulertuko lirateke adingabeari kalte bat eragiteko nahiko direla? Emandako definizio hori oinarritzat harturik, adingabeari zuzenean erasotzeaz gain, adingabeak bere familiako kide batek beste familiako kide batean aurka egiten dituen erasoak ikustera behartzea ere kalte gisa ulertu daiteke. Hala ere, bikario terminoak giza hilketak baino biktima-esparru zabalagoa izan arren, nire lana biktima bikarioen errealitate larriena aztertzea mugatuko da. Hau da, erailketa edo giza hilketak baten biktima izan diren seme-alabetara.

Ildo beretik doa CORDERO MARTIN, LOPEZ MONTIEL eta GUERRERO BARBERÁN¹¹-ek “biktima bikarioen” inguruan egiten duten azterlanak. Kasu honetan,

⁹ Vaccaro, S. (2018). *La justicia como instrumento de la violencia vicaria: la ideología del pretendido “sSAP” y la custodia compartida impuesta*. Consello da Cultura Galegak argitaratua. URL helbidea: http://consellodacultura.gal/mediateca/extras/CCG_ac_2018_novasformasviolenciaxenero_soniavaccaro.pdf

¹⁰ Peral López, M^a del Carmen. (2018). *Madres maltratadas : violencia vicaria sobre hijas e hijos* (Ser. Atenea : estudios de género). Malagako Unibertsitateko Argitalpen eta Zabalkuntza Zientifikorako Zerbitzua. URL helbidea: <https://public.ebookcentral.proquest.com/choice/publicfullrecord.aspx?p=5636480>

¹¹ Cordero Martín, G.& López Montiel, C. & Guerrero Berberán, A.I. (2017). *Otra forma de Violencia de Género: La instrumentalización. “¿Dónde más te duele!”*. Documentos de Trabajo Social (59), 170.-189. URL helbidea: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=6588970>

arreta genero-indarkeriaren biktima zuzena den emakumearen gain eragiten den pairamen psikologikoan jartzen da. Izan ere, seme-alaben instrumentalizazioaren helburu bakarra emakume horrengan sufrimendua eragitea da (BERNUZ BENÍTEZ, 2015). Azken urteotan, ugariak izan dira seme-alaben hilketak emakumearengan ahalik eta sufrimendu handiena sortzeko. Hilketa hauek genero-indarkeriaren baitan modalitate bereizi bat sortzearen arrazoia hau da: *“el fin último que pretende el sujeto activo de estos ilícitos penales no es otro que causar el mayor daño posible a la madre de estos niños y niñas”* (YUGUEROS GARCÍA, 2016, 39. orr.)

Azken honen harira CASTILLERO MIMENZA¹²-k honako definizio hau ematen du indarkeria bikarioaren inguruan: *“Indarkeria bikarioa bigarren mailako indarkeria da, hirugarren pertsona bati zeharka kalte bat eragiteko asmoz gauzatzen dena”*. Are gehiago, azken honek eskaintzen digun iritziak adierazten duenez, tratu txarren emaileek beraien indarkeria eta tratu txarrekin jarraitzeko alderdirik ahulenaren kontra joatea erabaki dute: emakumearen seme-alaben aurka. Tratu txarren emailea adingabearen ahultasunaz baliatuz, hauen osotasun fisiko zein psikikoa kaltetzen dute bere biktima nagusiarengan kalte psikologikoa eragiteko.

Esandakoa dela eta, ondorioztatu daiteke indarkeria bikarioa emakumearen kontrako hertsapena edota kontrola mantentzeko tratu txarren emaileak erabiltzen duen baliabideetako bat dela.

C. Biktimaren legezko kontzeptuaren bilakaeraren azterketa.

Genero-indarkeriaren ondorioz biktima bikario gisa kalifikatuak izan diren seme-alaben figura aztertzen hasi baino lehen, ezinbestekoa da *“biktimaren”* legezko kontzeptuaren bilakaera aztertzea.

Azken urteotan, delituaren biktimaren trataera funtsezko helburuetako bat bihurtu da Estatu desberdinen Zigor politiketan. Hau dela eta, MACHIORI eta FORTETE¹³-k beraien lanaren planteamendu teorikoan adierazten dutenez, delituen biktimen gaineko interesak politika nazionalen eremua gainditu eta nazioarteko erakundeetan islatu da. Hala nola, NBE, Europako Kontseiluan eta Europako

¹² Castillero, O. (datarik gabe) *¿Qué es la violencia vicaria?. Un tipo de violencia indirecta que sufren los más desprotegidos: los niños.* Psicología y Mente. URL helbidea: <https://psicologiymente.com/forense/violencia-vicaria#:~:text=La%20violencia%20vicaria%20es%20un,forma%20secundaria%20a%20la%20principal>

¹³ Marchiori, H., & Fortete, C. (2011). *Ley y victima : panorama internacional* (1a ed., Ser. Victimología, 10). Brujas. 31.-32. orr. URL helbidea: <https://elibro-net.ehu.idm.oclc.org/es/ereader/ehu/76588?page=1>

Komisioan. Erakunde hauetan aztertzen ari garen delituaren biktimaren interesaren gaineko erabakiak hartu dira adierazpen eta zuzentarauen bitartez. Hau horrela izanik, azpimarragarriak dira honako bi testu:

a. 40/34 ebazpena, 1985ekoa, NBEren Batzar Nagusiarena, Delituen eta Botere-Abusuaren Biktimentzako Justiziaren Oinarrizko Printzipioei buruzko Adierazpena onartzen duena¹⁴.

Nazioarte mailan gai honetan lortutako arrakasta politikorik esanguratsuena da NBEren Batzar Orokorrek onartu zuen azaroak 29ko 40/34 Ebazpena. Ebazpen honetan delituaren biktimen justiziarako sarbiderako eta hauen trataera egokirako, kalte-ordain duintu baterako, jasandako kaltea konpontzeko eta beharrezkoa duten gizarte laguntzarako nazioarte zein estatu mailan hartu beharreko zenbait neurri proposatzen dira.

Adierazpen honen lehen atalean, delituaren biktima gisa kalifikatuko diren pertsonen deskribapena eta azalpena ematen da. Halaber, nazioarte mailako testu honetan egiten den sailkapenean ez dira “biktima zuzena” eta “zeharkako” biktimak bereizten, baizik eta “biktima” kontzeptuaren baitan barnebiltzen ditu bai zuzenean bere ondasun juridiko penala kalteturik ikusten duen pertsona bai zeharka kaltea jasaten duen biktimaren gain eragiten den delitua dela eta bere pertsonarengan eraginak dituen.

Lehen hitzean adierazten da “biktima” izango dela banaka zein era kolektibo batean kalte bat jasan duen pertsona oro. Hau da, “kalte” gisa ulertuko da indarrean dagoen zigor legeria urratzen duten egintza edo ez-egintzen ondorioz eragindako lesio fisiko zein psikikoak jasatea, pairamen emozionala, galera ekonomikoa edota oinarrizko eskubideen urrapena. Hortaz, biktima bikarioen definizioa honako azalpen honen baitan kokatuko genuke, eta bide batez Adierazpen honetan jaso diren neurriak aplikatu ahalko litzaizkieke biktima bikarioak diren seme-alaba hauei. Azken finean, 40/34 Adierazpenean ez da delitugilearen asmoan arreta jartzen “biktima” gisa kalifikatzeko; baizik eta subjektu pasibo horrek jasan dituen kalteei.

¹⁴ Nazio Batuen Batzorde Nagusia. 40/34 ebazpena, 1985 azaroak 29koa, *delituen eta botere-abusuaren biktimentzako justiziaren oinarrizko printzipioei buruzko adierazpena onartzen duena*. URL helbidea: <http://www.un.org/es/comun/docs/>

b. 2012/29/EB Zuzentaraua, urriaren 25ekoa, delituen biktimen eskubideei, laguntzari eta babesari buruzko gutxieneko arauak ezartzen dituena¹⁵.

Europar Batasuneko eremura bueltatuz (EB, hemendik aurrera), 2012/29 Zuzentarauak delituen biktimen babeserako beharrezkoak diren gutxieneko arauak ezartzen ditu. Estatu kideek bere edukia garatu dezakete delituen biktimei babes maila handiago bat eskaintzeko. Zuzentarau honen helburua delituen biktimek beharrezkoa duten informazioa, laguntza eta babesa jaso dutela eta zigor prozeduretan duten parte hartzea bermatzea da. Baina nori deritzegu “*delituaren biktima*” zuzentarau honen arabera? Galdera honen erantzuna 1. Kapituluari, xedapen orokorrak arautzen diren ataleko 2. Artikuluari (definizioetan) aurkitzen dugu.

Artikulu honen a) hizkian “biktima” kontzeptuak zer nolako edukia barnebiltzen duen azaltzen da. Atal honetan, kaltea zuzenean jasan izan duen pertsona fisikoa eta delitu baten biktimaren heriotzaren ondorioz kalte bat jasan izan duen familiako kideak bereizten dira biktima gisa.

Zuzentarauak “biktimaren” legezko kontzeptuaren inguruan ematen duen definizioa era osatuago batean aztertzeko, PÉREZ-RIVAS¹⁶-en iritzian oinarrituko dut nire azalpena. Lehenik eta behin, 2012/29/EB Zuzentarauak biktimaren inguruan ematen duen definizioa oso zabala dela esan genezake. Azken finean, definizioan subjektu pasiboa zein delitugilea barnebiltzen ditu: “*La persona física que haya sufrido un daño o perjuicio, en especial lesiones físicas o mentales, daños emocionales o un perjuicio económico, directamente causado por una infracción penal*” (2.1.a) i) artikulua).

2012/29/EB zuzentarauko 2. artikuluaaren analisiarekin jarraituz, adierazten da biktima zuzena delituaren gauzatzearen ondorioz hiltzekotan Zuzentaraun jaso diren eskubideen titular izango liratekeela biktimaren familiako kideak. Zehatzago, “*familiako kide*” izango dira: ezkontidea, biktimarekin bizi den eta jarraikako harreman pertsonal estua eta egonkorra duen pertsona, lerro zuzeneko familiako kideak, neba-arrebak, eta biktimaren kargu dauden pertsonak. Hori horrela izanik, lan honetan

¹⁵ Europar Parlamentua eta Kontseilua. 2012/29/EB Zuzentaraua, urriaren 25ekoa, *delituen biktimen eskubideei, laguntzari eta babesari buruzko gutxieneko arauak ezartzen dituena*. URL helbidea: <https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:32012L0029&from=GA>

¹⁶ Pérez-Rivas, N. (2017). *El modelo europeo de estatuto de la víctima*. Díkaion Revista De Fundamentación Jurídica, 26(2), 266.-269. orr. URL helbidea: <https://doi.org/10.5294/dika.2017.26.2.3>

aztertzen ditugun “biktima bikarioak” 2.1 a) i) artikuluaaren definizioan sartzen dira, kaltea zuzenean jasaten baitute.

Biktima hauei ematen zaien laguntzarekin erlazionaturik, Espainia mailan 35/1995 Legea¹⁷ daukagu. Lege honek, indarkeria eta askatasun sexualaren kontrako delituen biktimei ematen zaizkien laguntzak arautzen ditu. Hau aztertzen ari garen gaiarekin lotuz, esan genezake adingabe bat - genero-indarkeriaren biktima bikarioa izanik - hiltzekotan bere ama laguntza ekonomikoaren onuraduna izan daitekeela lege honen 2. artikuluan jaso diren irizpideak betetzekotan. Hau da, kaltea emakumearen aurkako indarkeriaren ondorioz sortu bada. Argi dago adingabe horren heriotza amari kalte bat eragiteko asmoz egin izan bazen, eraso hori genero-indarkeriaren ondorio gisa ulertu daitekeela.

Behin nazioarte eta EBaren baitan “biktima” kontzeptuari eman zaion esanahia aztertuta, Espainiako Estatuan biktimen inguruko 4/2015 Legea daukagu¹⁸. Apirilak 27ko 4/2015 Legeak, Aurretiazko Tituluan jaso dituen xedapen orokorretan, 2. artikuluan arautzen du biktimaren kontzeptu orokorra. Artikulu honen baitan, sailkapen bat egiten du biktima moten artean: biktima zuzenak eta zeharkako biktimak desberdinduz.

Biktima zuzenak izango lirateke bere pertsona edo ondarearen gain kalte zuzena jasan duten pertsona fisikoak; zehazki, delitu baten gauzatzearen ondorioz kalte fisiko zein psikikoak edota ekonomikoak jasan dituen pertsonetaz ariko ginateke. **Zeharkako biktimen** kasuan, aldiz, delitu baten ondorioz pertsona baten heriotza edo desagertzea gertatu izanagatik beste hirugarren batek jasan dezakeen kalteaz ari da.

Hala ere, genero-indarkeriaren biktimen seme-alabak biktima zuzen (edo bikario) edota zeharkako biktima gisa kalifikatzearen arteko desberdintasuna kaltea zuzenean eragin izatean zein kaltea bigarren mailako ondorioa izatean datza. Hau da, seme-alaba horren gaineko indarkeria edota nolabaiteko kalte zuzena eragiten baldin bada, posible izango litzateke biktima zuzen gisa kalifikatzea. Are gehiago, kalte hori sortzearen helburua hirugarren bati (emakumeari) kalte bat eragiteko instrumental gisa erabiltzea bada, seme-alaba horiek biktima bikario gisa kalifikatu genitzake.

¹⁷ Abenduak 11ko 35/1995 Legea, indarkeria eta askatasun sexualaren kontrako delituen biktimei ematen zaizkien laguntzak arautzen dituena. Estatuko Aldizkari Ofiziala, 296 zk., 1995eko abenduak 12, <https://www.boe.es/eli/es/l/1995/12/11/35/con>

¹⁸ 4/2015 Legea, apirilak 27koa, Delituaren Biktimaren Estatutuaren ingurukoa (2015). Estatuko Aldizkari Ofiziala, 101 zk., 2015eko urriak 28, URL helbidea: <https://www.boe.es/eli/es/l/2015/04/27/4/con>

Honen inguruan, Espainiako ordenamendu juridikoan genero-indarkeriaren biktima bikarioak diren seme-alabei zer nolako trataera ematen zaien jakiteko, genero-indarkeriaren inguruko gobernuko ordezkariak 2013 urtean Emakumezkoen aurkako indarkeriaren erauzterako Estatu mailako 2013-2016 Estrategia¹⁹ daukagu. Testu honetan, lehendabiziko aldiz, helburuetariko bat genero-indarkeriaren biktima bikarioak diren seme-alabei eskaintzen zaie. Helburu honen muinean hauen aurkako erasoak murriztea aurkitzen dugu. Hala ere, hau sakonago aztertuko dugu hurrengo tituluari.

D. Análisi kuantitatiboa: datu estatistikoak (Nazioartekoa/Europakoa/Estatukoa)

Gizartearengan genero-indarkeriak duen arazoaren adierazgarrietako bat biktimen inguruan egiten diren estatistikak dira. Kasu honetan, genero-indarkeriaren biktima bikarioak izan diren seme-alaben datuak aztertuko ditugu Nazioarte, Europa eta Estatu mailan.

a. Nazioarte mailan genero-indarkeriaren biktima izan diren seme-alabak

Dakigunez genero-indarkeria mundu mailako arazo bat da, emakumeen oinarrizko eskubideen urraketa suposatzen baitu. NBEak, honako definizio hau eman zuen genero-indarkeriaren inguruan: *"Emakumeen gain pairamen fisiko, psikiko edota sexuala eragin dezakeen eta generoa arrazoi duen edozein motatako indarkeria, arlo publikoan zein pribatuan eman daitekeena"*²⁰.

Honen inguruan, Osasunaren Munduko Erakundeak²¹ (OME, hemendik aurrera) egindako azterlanaren arabera, munduan 3 emakumetik 1ek (% 35ak) genero-indarkeria sufritu du. OMEk egindako azterlan berean, mundu mailako gaitz honek adingabeetan duen eragina ere aipatzen du. Zehatzago, genero-indarkeriak emakumeen seme-alabengan izan dezakeen eragina aitortzen da. Izan ere, bikotekide baten baitan ematen den genero-indarkeria adingabeen heriotza-tasa eta eritasunarekin zuzenean erlazionaturik dagoela ondorioztatu dute.

¹⁹ ESTRATEGIA NACIONAL PARA LA ERRADICACIÓN DE LA VIOLENCIA CONTRA LA MUJER (2013 - 2016), Osasun, gizarte segurantza eta berdintasun saila, argitalpen zentrua, URL helbidea: <https://violenciagenero.igualdad.gob.es/planActuacion/estrategiaNacional/docs/EstrategiaNacionalCastellano.pdf>

²⁰ United Nations. Declaration on the elimination of violence against women. New York : UN, 1993. (itzulpen propioa - "Itz. pr.", hemendik aurrera-)

²¹ Osasunaren Munduko Erakundea (2017) *Violence against women*. URL helbidea: <https://www.who.int/en/news-room/fact-sheets/detail/violence-against-women>

Honen harira, ezinbestez aipatu behar da konfinamendu garaian emakume zein adingabeen aurkako genero-indarkeriaren areagotzea. Honen adierazgarri da OME²²-k argitaratu zuen idazkia. Izan ere, bertan adierazten da munduko zenbait herrialdek (Txina, Erresuma Batua, Estatu Batuak...) itxialdi garaian genero-indarkeria kasuak areagotu direla salatu dutela. Azken finean abusuzko erlazio baten menpe dauden emakumeek eta horien seme-alabek aukera gehiago dituzte honelako egoera batean eraso gehiago jasateko.

b. Europa mailan genero-indarkeriaren biktime bikarioak izan diren seme-alabak

Europar Batasunaren baitan, genero-indarkeriaren biktime inguruko datuak jasotzen dituen erakundea Europako Genero Berdintasunerako Institutua da (EGBI, hemendik aurrera²³). Erakunde honek, EBko 28 estatu kideetako genero-indarkeriaren inguruko datu administratiboak biltzen ditu. Hala ere, informazio hau biltzerakoan oztopoak aurki daitezke badaudelako salatzen ez diren kasuak ere²⁴.

Honen inguruan, 2014 urtean, EB-ko Oinarrizko Eskubideen Agentziak azterlan bat egin zuen bizirik dauden genero-indarkeriaren biktime izan ziren emakumeen inguruan²⁵. Bertan, emakume hauen seme-alabek genero-indarkeriara duten esposizioa aztertu zuen. Honetarako seme-alabak zituzten emakumeei zenbait galdera egin zizkieten. Emakume horietako % 73ak adierazi zuen beren seme-alabak genero-indarkeriaren jakitun bihurtu zirela. Are gehiago, emakume horietako % 7ak gizonak seme-alaba horiek kentzen saiatu zirela adierazi zuen, % 3ak seme-alaba horiek zauritzen saiatu zirela esan zuen eta % 3ak aurreko saiakuntza hori gauzatu zutela.

²² Osasunaren Munduko Erakundea (2020) *Gender and COVID-19. Violence against women and children increases during lockdowns*. 1. orr. URL helbidea: <https://www.who.int/publications/i/item/gender-and-covid-19>

²³ European Institute for Gender Equality (EIGE). *Gender Statistics Database. National sources of survey and administrative data on gender-based violence*. https://eige.europa.eu/gender-statistics/dgs/indicator/genvio_statcap_gbv_nat_statcap/datable

²⁴ Salatzen ez diren kasu hauei "zifra beltzak" deritze. Laburki azalduz, EGBI-k 2018an egindako analisi batean ondorioztatu zuen genero-indarkeria jasaten zuten hiru emakumetatik batek bakarrik salatzen zuela; hau da, soilik % 33ak. Iturria: <https://eige.europa.eu/news/reported-cases-violence-against-women-reveal-only-tip-iceberg>

²⁵ FRA, European Union Agency for fundamental rights (2015). *Violence against women: an EU-wide survey, main results, 7.8 Adult women's children's exposure to violence in the family*. Luxembourg: Publications Office of the European Union.


c. Estatu mailan genero-indarkeriaren biktima bikarioak izan diren seme-alabak

Nahiz eta Espainiar Estatuan genero-indarkeriaren biktimen estatistikak 2004 urtean egiten hasi - hau da, Genero Indarkeriaren Aurkako Babes Neurrien inguruko Lege Organikoa onartu zenean (GIABN, hemendik aurrera) -, Espainiar Gobernuko Berdintasun eta Genero-indarkeriaren aurkako Estatuko Idazkaritzak²⁶ 2013. urtetik baino ez ditu genero-indarkeriaren biktima bikarioak diren seme-alaben inguruko datuak biltzen. Datu hauek urtero argitaratzen dira, jarraian aztertuko ditugun inguruabarrak jaso dituen txosten batean.

Honen analisia egiteko, bitan banatuko dugu gure azterlana: 1. Genero-indarkeriaren ondorioz bizitza galdu duten eta biktima bikarioak diren adingabeak eta 2. Erasogileen inguruko datuen erkaketa.

1) GENERO-INDARKERIAREN ONDORIOZ BIZITZA GALDU DUTEN ETA BIKTIMA BIKARIOAK DIREN ADINGABEAK.

1. Taula. 2013-2020 urteetan zehar heriotza eragin dieten seme-alaben kopurua eta 1.2 Taula. Forma komisiboen arabera banaketa



1. Taulan ikusi dezakegunez, 2013tik 2020ra garapen nahiko irregularra jarraitu izan da. 2013-2016 urteen bitartean eraildako seme-alaben kopuruaren jaitsierarako joera bertan behera geratu zen 2017 urtean. Izan ere, urte batetik bestera zenbatekorik baxuenetik (1 adingabe 2016an)

altuenera (8 adingabera 2017an) igaro ziren. Hortaz, % 700eko igoera eman zen²⁷.


²⁶ Espainiar Gobernuko Berdintasun eta Genero-indarkeriaren aurkako Estatuko Idazkaritza (2020), *Menores víctimas mortales en casos de violencia de género contra su madre en España*. URL helbidea: <https://violenciagenero.igualdad.gob.es/violenciaEnCifras/victimasmortales/fichaMenores/home.htm>

²⁷ Pérez, J.A. (2018) *El daño de la violencia de género en menores: 23 asesinados y 185 huérfanos en cinco años*. InfoLibre. URL helbidea: https://www.infolibre.es/noticias/opinion/plaza_publica/2018/02/28/los_menores_asesinados_por_violencia_genero_multiplican_por_ultimo_ano_75394_2003.html

Zifrarik baxuenaren azalpen gisa, PERAZZO²⁸ -ren iritziaren arabera, 2015ean onartu zen Haurtzaroko Legeak zerikusia izan zuen. Lege hau onartu zenetik seme-alabak genero-indarkeriaren biktima direla ulertu da eta hauen babeserako neurri gehiago aurreikusi dituzte epaileek.

1.2 Taula

Forma komisiboen arabera banaketa (%-tan)



Iturria: Separadasydivorciadas.org/Estadisticas


37 seme-alabetatik 26 biktimarekiko zuzeneko ukitzea galdatzen duten formen bitartez erasotu zituzten: 12 arma zurien bitartez, 9 asfixia edo itotzearen bitartez eta 5 kolpeen bitartez. Honek argi uzten du erasotzaileek seme-alaba horiekiko eta hauen amekiko zuten amorruek jota jardun zutela. Seme-alaben sufrimendua zuzen-zuzenean ikusten baitzuten erasotzen zituzten bitartean.

Atal berean, ezinbestekoa da ñabardura txiki bat egitea seme-alaben erailketa hauen forma komisiboetan²⁹. Honetarako, 1.2 Taulan ikusi dezakegunez, % 32,4ak arma zuria erabili zituen seme-alaba hauei bizitza kentzeko; hortaz, 37 seme-alabetatik 12k arma zurien ondoriozko zauriak jasan zituzten - 9 sastakatu zituzten eta 3ri lepoa moztu zieten-. Hala ere, nabarmentzekoa da zer nolako forma komisiboak diren ugariak. Izan ere,

2. Taula. Banaketa geografikoa

2. Taula

Banaketa geografikoa: Autonomia Erkidegokoa



Iturria: Espainiar Gobernuko Berdintasun eta Genero-indarkeriaren aurkako Estatuko Idazkaritza


2. Taulatik ondorioztatu dezakegu genero-indarkeriaren ondorioz hil dituzten seme-alaben kopuru altuena Andaluzian dagoela (8 biktima). Andaluziaren ostean, Madrilgo Erkidegoa eta Valentiako Erkidegoa dira honelako biktima gehien izan dituztenak (6 biktima lurralde bakoitzean), beraz % 13,7 a hurrenez hurren.

²⁸ Moraleda, A. (2017) "2016 cierra con un menor víctima de violencia machista", El País. URL helbidea: https://elpais.com/politica/2017/01/27/actualidad/1485521119_491446.html

²⁹ Grafiko propioa. Federación de Asociaciones de Mujeres Separadas Y Divorciadas. Estadísticas. Menores asesinados víctima de la violencia de género (2013,2014,2015,2016,2017,2018,2019 eta 2020ko taulak) (URL helbidea: <https://www.separadasydivorciadas.org/estadisticas/>) oinarri gisa harturik lortutako informazioaren bitartez egindakoa.

Hala ere, datu hauen analisi zehatza egiteko ezinbestekoa da zenbait irizpide kontuan izatea. Hala nola, Autonomia Erkidego bakoitzeko biztanleria kopurua (Estatistikako Institutu Nazionalak (EIN, hemendik aurrera) emandako datuetan oinarrituz). Hori horrela izanik, 100.000 biztanleko tasari erreparatzen badiogu, Asturias izango litzateke tasarik altuena duen Autonomia Erkidegoa 1.018.784 biztanle eta 0.1963eko tasarekin. Hurrengo tasarik altuena duena Gaztela-Mantxa litzateke 2.045.221 biztanle eta 0.1956eko tasarekin. Hortaz argi dago, datuen azterketa sakonagoa egitea ezinbestekoa dela datu zehatzak lortzeko.

3. Taula. Adingabeen adinaren araberako datuak



Genero-indarkeriaren ondorioz hil dituzten adingabeak sailkatzeko beste irizpideetako bat, hauen adina eta naziokotasuna da. Adinari dagokionez, alboko taula honetan ikus dezakegu aniztasuna dagoela. Bertatik ondorioztatu daiteke adin goiztiarrei lotutako zaurgarritasunak biktimizazioetan eragiten duela. Zehatzago, 11 urtetik gorako biktimak guztizko biktimen % 24a baino ez dira. Azken

finean, zenbat eta gazteagoa izan biktima bere defentsarako gaitasuna ere txikiagoa izango da. Ideia honekin bat dator MARTÍ LLORET³⁰-en iritzia. Izan ere, azken honen iritzia adingabeak animalien kumeekin erkatzen ditu haurra izakirik ahulena dela adierazteko. Hots, animaliek beraien kumeak harrapakarietatik babesten dituzte eta gauza bera egin beharra dago haurrekin, beraien osotasun fisiko, psikiko eta morala kaltetu dezaketean erasoetatik babestea.


4. Taula. Biktimen naziokotasunaren araberako banaketa.

Biktima hauen naziokotasunari dagokionez, % 90ak (33 adingabek) espainiar naziokotasuna zuten. Eta % 10ak (4 seme-alaba) beste naziokotasun bat zuten. Taula honetan islatzen diren emaitzak logikoenak dira. Izan ere, espainiar naziokotasuna

³⁰ Rodes Lloret, F. & Moren Olmos, C.E. & Pastor Bravo, M. (2010) *Vulnerabilidad infantil un enfoque multidisciplinar*. 1. atala (La vulnerabilidad del menor). Díaz de Santos argitaletxea. 1.-5. orr. URL helbidea: https://www.researchgate.net/profile/Jose-Garcia-Del-Castillo/publication/236008889_Vulnerabilidad_infantil/links/00b7d515a224262387000000/Vulnerabilidad-Infantil.pdf

4. Taula

Biktimen naziokotasunaren araberako banaketa




Iturria: Espainiar Gobernuak Berdintasun eta Genero-indarkeriaren aurkako Estatuko Idazkaritza

naziokotasuna zuen adingabea daukagu. Kasu horretan, oporretan baitzeuden Espainian³².

5. Taula. Biktimen sexuaren araberako banaketa.

5. Taula

Biktimen sexuaren araberako banaketa



Iturria: Unión Sindical Obrera, *Menores y violencia de género: luchemos para frenar su aumento*

kontuan izan behar da. Zehatzago, Unión Sindical Obrerak³³ egindako azterlan batean adierazten den iritziari jarraiki, 6 urtetararteko seme-alaba gehienak neska diren heinean, 7 urtetik aurrera mutilak izan ohi dira. Honen arrazoia ez da argia, baina,

jaiotzaz jaso daiteke Espainiar Gobernuak³¹ hau lortzeko argitaratzen duen zerrendan adierazten denez. Horren harira, genero-indarkeriaren ondorioz beraien amak kaltetzeko erail zituzten adingabeen % 90a Espainian jaio zen. Gainontzeko 4 seme-alaben inguruan hipotesi desberdinak egon daitezke. Hala nola, 2019. urtean Adejen (Tenerifen) aitak erail zuen eta alemaniar

5. Taulan ikus dezakegunez, 2013-2020 urteen bitartean genero-indarkeriaren ondorioz erail zituzten 37 seme-alabetatik 22 mutikoak ziren, 14 neska eta kasu batean ez zen zehaztu biktimaren sexua. Emaitza hauetatik ondorioztatu daiteke mutilekiko indarkeria eta erasoak ugariagoak direla. Hortaz, mota honetako delituetako biktimen biktimizazioa egiterakoan hauen sexua

³¹ Espainiako Gobernuako Atzerriko gaien, Europar Batasunaren eta Lankidetzaren Ministeritza. (2018) Información para extranjeros. nacionalidad española ¿Cómo se adquiere la nacionalidad española? URL helbidea:

<http://www.exteriores.gob.es/Portal/es/ServiciosAlCiudadano/InformacionParaExtranjeros/Paginas/Nacionalidad.aspx>

³² Ferro, L. (2019) "El niño superviviente del doble asesinato de Adeje no sabe aunque su madre y hermano han muerto". La Vanguardia, Bartzelona, 2019ko apirilak 30. URL helbidea: <https://www.lavanguardia.com/sucesos/20190430/461968162874/nino-superviviente-doble-asesinato-a-deje-desconoce-muerte-familiares.html>

³³ Unión Sindical Obrera (USO). (2020) *Menores y violencia de género: luchemos para frenar su aumento*. Igualdad. URL helbidea:


<https://www.uso.es/menores-y-violencia-de-genero-luchemos-para-frenar-su-aumento/>

lehenengo atalean aztertu dugun patriarkatuaren ideia bueltatuz, mutikoei esleitzen zaien rola aurkitzen dugu. Hau da, mutilei babesle eta ausart izatearen ezaugarria ezarri zaie gizarte patriarkalaren aldetik. Hori dela eta, ama babesteko orduan arrisku egoera batean jartzen ditu semeak ideia honek.

2) ERASOGILEEN INGURUKO DATUEN ERKAKETA.

Behin genero-indarkeriaren biktima diren seme-alaben inguruko datuak aztertuta, jo dezagun erasotzaileekin zerikusia duten datuak aztertzeraz. Honetarako, 2013-2020 urteen bitartean seme-alabak erailtzen dituzten erasogileen eta emakumezkoak erail dituzten erasogileen arteko erkaketa egingo dugu honako irizpide hauek aztertuz :

6. Taula. Erasotzaileen naziokotasuna




Guztira, 2013-2020 urteen bitartean 32 izan ziren genero-indarkeria zela eta emakumeen seme-alabak erail zituzten erasotzaileak. 32 horietatik, % 60ak Espainiako naziokotasuna zuen eta % 40ak beste naziokotasun bat.

Ehuneko hauek Espainiar Estatuan urte berdinetan (2013-2020) emakumeak erail

dituzten erasotzaileekin konparatuz, emaitzak parekoak dira. Hau da, erasotzaile gehienek espainiar naziokotasuna dute.

7. Taula. Erasotzaileen adina




Erasotzaileen adina aztertzerakoan seme-alaba hauen erasotzaileak eta emakumeen erasotzaileak erkatu ditugu. Alboko grafikotik ondorioztatu daitekeenez, seme-alaben erasotzaileen adin tartea emakumeen erasotzaileena baino murrizagoa da: % 45.16ak 41-50 urte bitartean zituzten, %

29.84ak 31-40 urte eta, azkenik, bai 20-31 bai 51-60 urte bitarteko erasotzaileak % 12.9a dira besteak beste.

Honen arrazoia argia da: adingabeak erasotzen dituzten gizonak beraien aitak edota beraien amen bikotekideak dira. Hurrengo taulan (8. Taulan) frogatuko dugu baieztapen hori. Hori dela eta, 60 urte baino gehiago dituzten gizonak ez dira seme-alaben erasotzailearen “profilan” sartzen, ezta 18-20 urteetako gizonak ere. Azken baieztapen honen adierazgarria, EINek amatasunaren inguruan egindako analisietan aurkitzen dugu. Análisi hauen arabera, 2018-2021 urteen bitartean lehendabiziko seme-alaba izateko batz besteko adina 32 urtetan aurkitzen da³⁴.

8. Taula. Hildako seme-alabekin zuten senidetasuna



Atal honetan aztertzen dena seme-alaba horiek erasotzaileekin nolabaiteko harremana zuten edo ez da. Horietatik, 2016ko kasuan, aipatu beharra dago biktimak ez zuela inolako senidetasunik bere erasotzailearekin. Gainontzeko kasuetan, % 82a erasotzailearen seme-alabak ziren. Beste % 18ak, bestelako senidetasun harreman bat zuten. Hortaz, argi dago seme-alaba ia guztien erasotzailek beren


aitak direla. Azken hau logikoena da. Izan ere, adingabe horiekiko gertutasun gehiago izateko aukera dutenak bere gurasoak dira. Are gehiago, ezinbestez aipatu beharra dago dibortzio baten ondorioz ezarritako bisita eta zaintza erregimenek erasotzaileei beraien asmoa gauzatzea errazten dietela.

9. Taula. Erasotzailea etxebizitza berdinean bizi adingabe horien amarekin

Atal honetan, erasotzailea hildako adingabe horien amarekin etxebizitza berdinean bizi zen edo ez aztertzen da: % 79a etxebizitza berdinean bizi ziren, % 21a, aldiz, ez. Hortaz, argi dago, erasotzaileetako gehienak emakume eta honen seme-alabekin bizi zirela etxebizitza berdinean.

³⁴ Estatistikako Institutu Nazionala (EIN). *Urteen arabera batz besteko amatasunerako adina. 2018-2021* urteak. URL helbidea: <https://www.ine.es/jaxi/Datos.htm?path=/t20/p278/p03/2018-2033/idb/l0/&file=01004.px>


9. Taula



Ehuneko hauek emakumeen erasotzaileen estatistikekin erkatu ditugu eta, nahiz eta emaitzak antzekoak izan, azpimarragarria da etxebizitza berdinean bizi ez diren erasotzaileen ehuneko altuagoa dela. Azken finean, seme-alaben erasotzaileetaz ari garenean, seme-alaba horiekiko

nolabaiteko hurbiltasun bat beharrezkoa da eraso gaiztatzeko. Gertutasun horrek erasotzeko aukera eskaintzen baitio erasotzaileari. Etxebizitza berean bizitzerakoan, biktima arrisku egoera altuago batean jartzen da eta posible egiten da erasotzaileak bere helburua lortzea.

10. Taula. Erasotzailearen bere buruaz beste egitea



Azkenik, erasotzailearekin zerikusia duten inguruabarren azterketarekin bukatzeko, erasotzaileetatik zenbat saiatu ziren bere buruaz beste egiten eta, are gehiago, horietatik zenbatek gauzatu zuten aztertzen da. Honetarako, alboko grafikotik ondorioztatu dezakegunez, erkaketa bat egingo dugu seme-alaben erasotzaileen eta emakumeen

erasotzaileen artean. 10. Taulak argi islatzen du bi egoeren arteko desberdintasun nabaria. Izan ere, seme-alaben erasotzaileetako % 56.25ak bere buruaz beste egin zuen bitartean, emakumeen erasotzaileen % 63.5ak ez zuen ezta saiakerarik egin. Honek argi uzten du adingabe bat hiltzearen ondoriozko barren-kezkak erasotzaileetako asko beren buruaz beste egitera eraman zituela.

III. GENERO-INDARKERIA ETA HAURTZAROKO ESKUBIDEAK: MARKO ARAUEMAILEA (NAZIOARTE, EUROPA ETA ESPAINIA MAILAN)

Genero-indarkeriaren biktima bikarioak diren seme-alabetaz ari garenean, ezin dugu ahaztu adingabe edo haurretaz ari garela. Hori dela eta, hurrek beraien berezko eskubideak dituzte. Eskubide horiek beraien titularren kalteberatasuna dela eta, babes berezi bat behar dute. Babes berezi horren baitan segurtasunezko ingurumen batean heztea dago. Hau horrela izanik, genero-indarkeriaren biktima zuzenak edo bikarioak diren seme-alabek dituzten haurtzaroko eskubideak aztertuko ditugu nazioarte, Europa eta Espainia mailan.

A. Nazioarte mailan dagoen araudiaren analisia

Atal honen hasieran aipatu dugun bezala, haurrak babes berezia behar duten gizarteko kideak direnez beraien garapen askea eta egokia bermatzeko beharrezkoak diren neurriak hartu behar dira. Behin hori argi izanik, azter dezagun nazioarte mailan haurren eskubideen babeserako ditugun baliabideak. Baliabide horietako esanguratsuenak, NBEaren lanetik datoz. Aipatu beharreko lehena, NBEak 1959an egin zuen *Haurren Eskubideen Babeserako Adierazpena* dugu (HEBA hemendik aurrera³⁵). Adierazpen honek bateratasuna lortu zuen nazioarteko komunitatean haurren eskubideen printzipioen inguruan, haurren babes berezirako ezinbestekoak zirela azpimarratuz.

NBEko beste idazki aipagarria, 1989an eman zuen *Haurren Eskubideen Babeserako Hitzarmena* da (HEBH hemendik aurrera³⁶). HEBHa nazioarte mailan haurren eskubideak aldarrikatu zituen lehen legezko testua izan zen; nazioarte mailan loteslea dena. Testu honetan barnebiltzen diren eskubide ugariak haurrak babesten dituzte orotariko indarkeriaz. Baita bizi diren ingurumenean gertatzen den genero-indarkeriaz ere.

³⁵ NBE Batzorde Orokorra.(1959) Declaración de los Derechos del Niño, resolución 1386 (XIV), de 20 de noviembre de 1959, URL helbidea: <https://www.cidh.oas.org/Ninez/pdf%20files/Declaraci%C3%B3n%20de%20los%20Derechos%20del%20Ni%C3%B1o.pdf>

³⁶ NBE. (2011) CRC/C/GC/13, Convention on the Rights of the Child, General comment No. 13 , URL helbidea: https://www2.ohchr.org/english/bodies/crc/docs/CRC.C.GC.13_en.pdf

Aztertzen ari garen gaiarekin harremanetan, HEBH-ko 19. artikulua daukagu. Artikulu honetan, Estatu kideak behartzen dira haurrak beraien familia, legezko ordezkari edota haurra bere kargura dituzten beste pertsona baten zaintzan dauden bitartean beharrezkoa duten babesa ematera. Babes egoki hori bermatzeko Estatu kideek beharrezkoak dituzten legezko neurriak, neurri administratiboak, gizarte neurriak edota hezkuntzarekin erlazionaturiko neurriak ezarri beharko dituzte. Are gehiago, HEBH-ko neurrien aplikaziorako organo propioa sortu zen NBEan: *Haurren Eskubideen Batzordea*³⁷. Organo honen zeregina Estatu kideek aurkeztzen dieten eskubideen erabileraren inguruko txostenak aztertzea da (Hitzarmenera atxikitzen direnean hasieran bi urtero aurkeztu behar dituzte eta aurrerago 5 urtero), honela HEBHko neurriak betetzen direla ikuskatzen du. Behin aztertuta, Estatu kide bakoitzari bere kezka eta aholkuak helarazten dizkie “amaierako oharren” bitartez.

Bestalde, aipatu beharreko beste dokumentu garrantzitsua 2002an NBEko 180 estatu kideek sinatu zuten “*Haurrentzako mundu egoki bat*” da. Dokumentu honetan, estatu kideek haurren aldeko 21 helburu ezarri zituzten hurrengo 10 urteetan betetzeko. Helburu horietako seigarrena da gure gaiarekin lotura zuzena duena: “*Adingabeak babestea indarkeria eta esplotaziotik. Haurrak babestu behar dira edozein motatako indarkeria, tratu txar, esplotazio eta bereizkeriatik*³⁸ ”.

Azkenik, nazioarte mailan aipatuko dugun azken testua, 2010ean NBEko Haurren aurkako Indarkeriaren inguruko Idazkaritza Orokorrak agindu zuen “*Haurren aurkako Indarkeriaren Mundu mailako Txostena*³⁹ ” da. Txosten hau NBEak haurrak zuzenean eta jarraikako era batean sartu dituen lehen ikerketa izan da. Are gehiago, txosten honetan haurrak eskubideen titularrak direla azpimarratzen da. Ikerketa honen mezu nagusia haurren aurkako edozein motatako indarkeria ezin justifikatu daitekeela eta ekiditea posible dela da.

³⁷ Oficina del Alto Comisionado de las Naciones Unidas para los Derechos Humanos. Comité de los Derechos del Niño. *Vigilancia del ejercicio de los derechos del niño*. URL helbidea: <https://www2.ohchr.org/spanish/bodies/crc/>

³⁸ Nazio Batuen Erakundea (2002) *Un mundo apropiado para los niños - Un programa que es al mismo tiempo visionario y concreto*. I. Titulua 7. atala 6. helburua. (itz. pr.) URL helbidea: <https://sites.unicef.org/spanish/specialsession/documentation/documents/A-S27-19-Rev1S-annex.pdf>

³⁹ Sérgio Pinheiro. P. (2010) Haurren aurkako indarkeriaren inguruko Nazio Batuen Erakundeko Idazkaritza Orokorrak agindutako aditua. *Informe mundial sobre la violencia contra los niños y niñas*. Observatorio de la Infancia. 47.-51. orr. URL helbidea: <https://observatoriodelainfancia.vpsocial.gob.es/productos/pdf/informeMundialSobreViolencia.pdf>

Gure gaiarekin zerikusia duen atala hirugarrena da: “*La violencia contra los niños y niñas en el hogar y en la familia*”. Atal honen sarreran bertan adierazten da, “familia” haurren babeserako ingurumen egokia izan behar den arren, zenbait kasutan arriskutsua suerta daitekeela. Honen harira, azpтитuluetak batean, indarkeria fisikoaren ingurukoan, erailketa aipatzen da. Bertan, mundu mailako edozein motatako indarkeriaren ondorioz gertatu diren erailketak aztertzen dira. Hala nola, ikerketa honen ondorioetako bat honako hau da: 10 urte baino gazteagoak diren hurrek aukera gehiago dituzte - nagusiagok diren hurrekin konparatuz- familiako kideen edota harreman estua duten pertsonen aldetik indarkeria larria jasateko. Azken hori bat dator bigarren tituluko hirugarren atalean Espainian 2013-2020 urteen bitartean genero-indarkeriaren ondorioz hildako seme-alaben adinaren ondorioekin.

B. Europa mailan dagoen araudiaren analisisia

Haurren eskubideak, giza eskubideen baitan kokatzen dira. Hori dela eta, EBaren aldetik eskubide horiek errespetatu, babestu eta bete behar dira. Honen oinarria, aurreko atalean aztertu dugun NBEak emandako HBEHak ezartzen dituen printzipio zuzentzaileak dira. EBko estatukide diren herrialdeek Hitzarmen hori berretsi baitzuten.

Hori horrela izanik, aipatuko dugun lehen dokumentua Europako Parlamentuak 1992 urtean egin zuen *Haurren Eskubideen inguruko Europako Gutuna* da (3-0172/92 Ebazpena⁴⁰). Gutun honetan haurren tutoretza juridikorako eskubidea ikuspuntu hirukoitz batetik ezartzen da: a) Gizarteratzearen ikuspuntutik, b) Familiako integraziotik eta c) bere ahultasun berezia dela eta beharrezkoa duen babesaren ikuspuntutik. Are gehiago, babes hori gauzatzeko eskubideen katalogo oso zabala aitortzen da bertan. (BORREGO MUÑOZ⁴¹) Gutun honetan jaso diren eskubideak izaera desberdinetakoak dira - hezkuntza, adingabeen lanaren debekua, errefuxiatuak, haurren duintasuna etab.-. Gure aztergaiarekin zerikusia duen eskubidearen inguruan

⁴⁰ Europako Parlamentua (1992ko uztailak 8koa), 3-0172/92 Ebazpena, *Haurren eskubideen inguruko Europako Gutunaren ingurukoa*. URL helbidea:

https://www.bienestaryproteccioninfantil.es/imagenes/tablaContenidos03SubSec/carta_europ_derecho_s_inf.pdf

⁴¹ Borrego Muñoz, G. (2014). *El sistema de protección de menores*. DEDiCA. *Revista de educación e humanidades*, 6 zk. (2014), 88-89 orr.

URL helbidea: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=4733980>

adierazten da Estatu kideetako legedia Estatu horretako haurrentzako onuragarriagoa den araudira hurbildu beharko dela zenbait arlotan; horien artean, g) hizkian adingabeak edozein motatako esklabutza, indarkeria edota sexu esplotaziotik babestua izan beharko direla ezartzen da. Hortaz, genero-indarkeria arrazoi izanik erailtzen dituzten seme-alabekiko gauzatutako indarkeria atal horretan ezartzen diren eskubideetan barnebilduko litzateke.

Horretaz gain, EBko erakundeek ere aurrera pausu nabarmenak egin zituzten haurren eskubideei dagokienez. Europar Kontseiluaren kasuan, 2006 urtean, "*Haurren Eskubideen inguruko Europar Batasuneko Estrategia*⁴²" deritzon jakinarazpena sortu zuten. Hala ere, jakinarazpen horren azterketarekin hasi baino lehen azpimarratu behar da EBak ez duela eskumenik oinarritzko eskubideen arloan. Hala ere, EBko Tratatuak ezarritakoaren arabera eskumen zehatza esleitzen zaio haurren eskubideak babestera eta sustatzera bideratutako jarduera positiboak egiteko. Betiere Estatu kideek duten eskumen orokorra urratu gabe eta subsidiaritate eta proportziozkotasun printzipioak errespetatuz (I. Titulua, I.3 atala). Hortaz, jakinarazpen hau ez da loteslea.

Jakinarazpena bueltatuz, I.4.2 atalean ezartzen denez, azken urteotan haurren aurkako indarkeriaren gaineko kezka areagotuz joan da eta indarkeria honek forma desberdina izan dezake (hala nola, familiaren baitan gauzatzen den indarkeria). Hori dela eta, III. Tituluan adierazten denez, *Haurren Eskubideen inguruko Europar Batasuneko Estrategiaren* helburu zehatzen artean EBaren jardueretan haurren eskubideen integrazioa burutzea (3. helburua) eta nazioarteko harremanen testuinguruan haurren eskubideak sustatzea daude (7. helburua).

Haurren eskubideen arloan ezinbestez aipatu beharreko beste arauetako bat, Europako Parlamentuak⁴³ egindako azterlanean oinarrituz, *Lisboako Hitzarmena* da -2009ko abenduak 1ean indarrean sartu zena-. Lisboako Hitzarmenak haurren

⁴² *Towards an EU Strategy on the Rights of the Child'* (2006) 4/7/2006 - COM 2006 367 Final. Brusela, 2006ko uztailak 4.

URL helbidea: <https://eur-lex.europa.eu/legal-content/EN/ALL/?uri=celex:52006DC0367>

⁴³ Canetta, E., Meurens, N., McDonough, P. & Ruggiero, R. Europako Parlamentua (2012), *EU Frame work of Law for Children's Rights*,

URL

helbidea:

[https://www.europarl.europa.eu/RegData/etudes/note/JOIN/2012/462445/IPOL-LIBE_NT\(2012\)462445_EN.pdf](https://www.europarl.europa.eu/RegData/etudes/note/JOIN/2012/462445/IPOL-LIBE_NT(2012)462445_EN.pdf)

eskubideen babesa EBaren funtsezko helburuetariko bat izatea ahalbidetu zuen. Haurren eskubideen estatutu-oinarria Europar Batasuneko Hitzarmeneko (EBH, hemendik aurrera) 3. artikuluan dago. Artikulu horren arabera, EBak haurren eskubideen babesa sustatzeko betebeharra dauka. Are gehiago, EBheko 2. artikulua giza eskubideen errespetua EBaren funtsezko helburua dela adierazten du.

Horretaz gain, EBko Justizia Auzitegiak (EJJA, hemendik aurrera) bere erabakietan haurren eskubideak babestu beharra azpimarratzen du: 2010eko abenduak 22ko C-491/10 PPU kasua, “*Aguirre Zarraga v Pelz*”, 2011ko Martxoak 8ko C-34/09 kasua, “*Gerardo Ruiz Zambrano v Office national de l’emploi (ONEM)*”, 2010eko C-497/10 PPU kasua, “*Mercredi v Chaffe*”, 2010eko urriak 5eko C-400/10 PPU kasua... (DIMITROVA-STULL⁴⁴)

Bestalde, EBaren araudira bueltatuz, aztertzen ari garen gaiarekin zerikusia duen araurik aipagarriena 2011ko maiatzak 11ko *Istanbuleko Hitzarmena* da⁴⁵. Hitzarmen hau, AVILÉS PALACIOS⁴⁶-en iritziarekin bat-etorritik, Europa mailan giza eskubideen, emakume eta gizonen arteko berdintasun eta emakumeen indarkeriaren aurka egindako marko juridiko sendoaren goreneko lorpena da. Hitzarmen hau dela eta, estatu kideek emakumezko eta hauen seme-alaben aurkako indarkeria ekidin (III. Kapituluak, 12-17 artikulua), biktimak babestu (IV Kapituluak, 18-28 artikulua) eta delitugileak zigortu beharko dituzte (V. Kapituluak, 29-47 artikulua). Are gehiago, Hitzarmen honen ondorioetarako “biktima” gisa ulertuko dira emakumeen aurkako indarkeria jasaten duten emakumeak edota familia indarkeriaren biktima diren pertsona fisikoak (I. Kapituluak, 3.e) artikulua (definizioak)).

Hala ere, azter ditzagun arretaz Hitzarmen honen hiru esparru horiek aztertzen ari garen gaiaren ikuspuntutik. Lehenik eta behin, indarkeriaren prebentzioa daukagu.

⁴⁴ Dimitrova-Stull, A. (2014) European Parliamentary Research Service (EPRS), *Violence towards children in the EU: current situation*, ISBN 978-92-823-6160-3

⁴⁵ *Instrumento de ratificación del Convenio del Consejo de Europa sobre prevención y lucha contra la violencia contra la mujer y la violencia doméstica*, hecho en Estambul 11 de mayo de 2011 (2014), Estatuko Aldizkari Ofiziala, 137, 2014ko ekainak 6an, 42946-42976. URL helbidea: [https://www.boe.es/eli/es/ai/2011/05/11/\(1\)](https://www.boe.es/eli/es/ai/2011/05/11/(1))

⁴⁶ Avilés Palacios, L. (2021) *Justicia en clave feminista: Reflexiones en torno a la inserción de la perspectiva de género en el ámbito judicial*, Capítulo VI: *La ratificación por la Unión Europea del Convenio del Consejo de Europa sobre prevención y lucha contra la violencia contra la mujer y la violencia doméstica. Entre el desideratum y la realidad*. 3. atala. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua. 83.-91. orr. ISBN. 978-84-1319-315-1. URL helbidea: <https://web-argitalpena.adm.ehu.es/pdf/USPDF213151.pdf>

Prebentzio hau gauzatzeko, tresna desberdinak arautzen dira: betebeharrak, sentsibilizazioa, hezkuntza, adituen prestakuntza, parte-hartze eta tratamendurako programa prebentiboak eta sektore pribatuaren eta komunikabideen parte-hartzea.

Beste alde batetik, biktimen babes eta laguntza arautzen da IV. Kapituluaren Hitzarmenaren arabera Estatu kideek edozein motatako indarkeriaz babesteko beharrezkoak diren neurriak hartuko dituzte. Babeserako neurri horietaz gain, estatuko agentzien (agintari judizialak, fiskaltza, segurtasuneko indar eta gorputzak, Gobernu Kanpoko Erakundeak etab.) arteko lankidetzaren eraginkorrerako mekanismo egokiak egoteko neurriak hartu beharko dituzte. Eskaini beharreko babes horren adibide zehatza 26. artikuluan aurki dezakegu. Bertan, genero-indarkeriazko eremu batean arrisku egoeran dauden adingabeen babeserako neurrietaz ari da Hitzarmena. Zehatzago, horrelako egoera batean Estatu kideek haur horien eskubideak eta beharrezkoak kontuan izateko beharrezkoak diren neurriak hartuko dituztela ezartzen da.

Azkenik, mota honetako delituak gauzatzen dituzten delitugileei ezarri beharreko zigorren inguruko xehetasunak ematen dira. Honen harira, Hitzarmen honek “astungarri” bat ezartzen du emakumearen kontrako eraso adingabe baten aurrean egiten den kasuetarako 46.d) artikuluan. Hortaz, ondorioztatu daiteke, Hitzarmen honen bitartez hartzen diren neurrien helburua adingabeak genero-indarkeriarengandik babestea dela. Honen adibide gisa, 31.2 artikulua daukagu. Bertan, genero-indarkeriarekin erlasionaturiko gertaeraren bat egotekotan, seme-alabak arrisku egoera batean jartzea ekiditeko, zaintza eta bisita eskubidea eteteko neurriak ezar ditzaketela adierazten da.

Ildo beretik, Europa mailan genero-indarkeriarekin erlasionaturiko Batzarrek egiten dira. Gure gaiari dagokionez, seme-alabak genero indarkeriaren biktima bikario gisa, 2017ko irailean Porton (Portugalen) egin zen bigarren Batzarra da aipagarria -*The second European Conference on Domestic Violence (ECDV)*-. Hitzaldi honetan arreta adingabe eta nerabeen aurka gauzatzen den genero-indarkerian jarri zen. Hori dela eta, arlo honetan azterlan eta ikerketa gehiago beharrezkoa zela azpimarratu zuten. Honen inguruan, OVERLIEN eta HOLT⁴⁷-en iritzia oinarri gisa hartuz, genero-indarkeria aztertzen duten azterleak Istanbulen Hitzarmenaren alde agertu dira - HBEHren

⁴⁷ Overlien, C. & Holt, S. (2029) *European Research on Children, Adolescents and Domestic Violence: Impact, Interventions and Innovations*, Springer Science+Business Media, LLC, part of Springer Nature 2019 URL helbidea: <https://link.springer.com/article/10.1007/s10896-019-00067-x>

aurkakoak izanda-; izan ere, hauen aburuz hurrek indarkeriarengandik babestuak izateko beharra izateaz gain, babes hori jasotzeko eskubidea dute. Hori dela eta, genero-indarkeriaren biktima bikarioak diren seme-alabak, ez ditugu soilik biktima gisa ikusi behar, baita eskubideen titular edo subjektu gisa ere.

C. Estatu mailan dagoen araudiaren analisia

Atal honen azterketarako, YUGUEROS GARCÍA⁴⁸ -ren iritzia hartuko dugu abiapuntu gisa. Zehatzago, honek egiten duen sailkapena:

1. **Uztailak 22ko 8/2015 Lege Organikoa indarrean sartu aurretik**

Estatu mailan, 1978ko Espainiako Konstituzioa (EK, hemendik aurrera) da familiaren babeserako bermeak - adingabeen eskubideak horien baitan- ezartzen dituen (19. artikuluan zehazki). Are gehiago, EK 39. artikuluan botere publikoen egitekoa familiaren gizarte babesa, babes ekonomikoa eta juridikoa bermatzea dela ezartzen da. Bereziki, adingabeenak.

Konstituzioak ezarritakoaren garapen gisa urtarrilak 15eko 1/1996 Lege Organikoa⁴⁹ daukagu. Lege Organiko hori legegileak izaera orokorreko eta estatu osoan zehar uniformea den adingabeen babeserako sistema publikoa sortzeko eman zuen lehen pausua izan zen. Aurrerago, Lege Organiko hau Autonomia Erkidegoek eredu gisa erabili zuten adingabeen babeserako sistemak ezartzeko legediak sortzerakoan. (LEIVA RODRÍGUEZ eta GARCÍA GARNICA⁵⁰).

⁴⁸ Yugueros García, A.J. (2016). *“La protección de los menores víctimas de violencia de género en España”*. Aposta. Revista de Ciencias Sociales, 70, 38-52, URL helbidea: <http://apostadigital.com/revistav3/hemeroteca/yugueros1.pdf>

⁴⁹ 1/1996 Lege Organikoa, urtarrilak 15ekoa, *Adingabearen Babes Juridikoaren ingurukoa, Kode Zibilaren eta Prozedura Zibilaren Legearen eraldaketa partziala suposatzen duena*. Estatuko Aldizkario Ofiziala, 1996ko urtarrilak 17an argitaratua. URL helbidea: <https://www.boe.es/eli/es/lo/1996/01/15/1/con>

⁵⁰ Leiva Rodríguez, B. & García Garnica, M^a C. (2016) *Análisis de las instituciones del sistema de protección de menores: Y su reforma por la Ley Orgánica 8/2015 y la Ley 26/2015 (I)*, El genio maligno, revista de humanidades y ciencias sociales, 19 zk. ISSN: 1988-3927 URL helbidea: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=6765864>

Genero-indarkeriaren gaira bueltatuz, 1/2004 Lege Organikoa⁵¹ argitaratu zutenean, GIABN, legegileak kontuan izan zuen genero-indarkeriaren biktima zuzenak diren emakumeen seme-alaben ahultasuna. Azken honen isla LOko 19.5 artikuluan aurkitzen dugu, gizarte-laguntza arautzen duenean. Are gehiago, atal berean era argi batean seme-alabak biktima bikario gisa aipatzen dira lehendabiziko aldiz. Hau da, seme-alabak emakumeen kontra eta hauen gaineko boterea izateko tresna gisa erabiltzen direla adierazten da; hori dela eta, adingabe hauei babes eta arreta berezia eskaini behar zaiela ezarri. Babes eta arreta horren adierazgarri da GIABNeko 64. artikulua. Bertan, epaileak erasogilearen gain ezarri ditzakeen zenbait neurri zerrendatzen dira. Neurri horiek biktimari babes eta segurtasun maila altuena emateko asmoz ezarri zituen legegileak.

2. Uztailak 22ko 8/2015 Lege Organikoa indarrean sartu ostean

Adingabeen Babes Juridikorako 1/1996 LOa indarrean sartu zenetik 20 urte geroago haurtzaro eta nerabezaroako babes juridikorako tresnak hobetzeko eta arlo honetan Autonomia Erkidegoentzako eredu gisa erabiltzeko eraldaketa sakona gauzatu zen adingabeen babeserako sisteman. Eraldaketa horren emaitza gisa bi arau argitaratu zituzten: 26/2015 Legea eta 8/2015 Lege Organikoa. Bi arau hauek materia organikoan beharrezkoak ziren aldagetak ekarri zituzten, Espainiar Konstituzioko 14,15,16,17 eta 24 artikuluetan arautzen diren oinarrizko eskubide eta askatasunen inguruan eragina baitute.

Guk uztailak 22ko 8/2015 Lege Organikoan⁵² ardaztuko dugu gure azterketa. Aurretik esan bezala, 8/2015 LOak adingabeen babeserako erakundeak arautzen dituen legeak eguneratu eta aldatu zituen - 1/1996 LO eta beste hogeitun lege -. Horien artean, aurretik aipatu dugun GIABNeko hirugarren amaierako xedapena eraldatu zuen. Eraldaketa honen helburua hau zen: genero indarkeriaren biktima zuzen gisa barneratu nahi zituzten honen biktima diren emakumeen seme-alabak. Honela, Estatu osoan zehar

⁵¹ 1/2004 Lege Organikoa, abenduak 28koa, *Genero Indarkeriaren Aurkako Babes Neurrien inguruakoa*. Estatuko Aldizkari Ofiziala, 2004ko abenduak 28an argitaratua. URL helbidea: <https://www.boe.es/eli/es/lo/2004/12/28/1/con>

⁵² 8/2015 Lege Organikoa, uztailak 22ko, *Haurtzaro eta Nerabezaroaren babeserako sistema eraberritzen duena*. Estatuko Aldizkari Ofiziala, 175 zk. 2015eko uztailak 25ean, 61871.-61889. orr. URL helbidea: <https://www.boe.es/eli/es/lo/2015/07/22/8>

babes uniforme bat eskaintzen da arlo honetan. Honen aurrekari gisa aurretiaz aipatu ditugun NBEak 1989ko azaroak 20an argitaratu zuen Haurren Eskubideen Hitzarmena eta Europako Parlamentuak 3-0172/92 ebazpenaren bitartez onartu zuen Haurraren Eskubideen Europako Gutuna dauzkagu.

LO honen egitura eta edukiari dagokionez, bi artikulua eta hiru amaierako xedapen ditu. Egin zituen eraldaketetako batzuk adingabearen interes gorenarekin eta entzuna izateko duen eskubidearekin zerikusia dute. Hala ere, gu Hirugarren Amaierako Xedapenera mugatuko gara; hau da, 1.2, 61,2, 65 eta 66. artikulua eraldatzen dituen xedapenera.

Lehenik eta behin, GIABNeko 1.2 artikuluan gauzatzen den eraldaketa aztertuko dugu. Bertan, “biktima” kontzeptuaren ordez “emakume, beraien seme-alaba adingabeak eta bere tutoretza edo zaintzapean dauden adingabeak” barnebiltzen dira. Honela, seme-alabak lege honen babespean geratzen dira zuzen-zuzenean. Azken finean, seme-alabak 1/2004 LOko (GIABONeko) 1.2 artikuluan sartzearen bitartez ageritasuna ematen zaio seme-alaben aurka gauzatzen den genero-indarkeria motari.

Aurretik aipatu dugunez, 1.2 artikulua gain, 61.2, 65 eta 66. artikulua ere aldatu ziren. Gure gaiarekin lotura dutenak azken bi artikulua dira. Hori dela eta, azter ditzagun laburki zer dioten. (MAGRO SERVET⁵³)

65. artikulua idatzaldi berriaren arabera epaileak genero-indarkeriarengatik auzipetua izan den gizonaren guraso ahala, zaintza eta jagoletza, harrera, tutoretza, kuradoretza eta izatezko harrera eten dezake bere menpe dauden seme-alabekiko. Etete hori ez erabakitzekotan, adingabearen eta bere amaren segurtasuna, osotasuna eta osatzea bermatzeko beharrezkoak diren neurriak hartu beharko ditu.

66. artikulua idatzaldi berriak antzeko betebeharrak ezartzen ditu. Baina, kasu honetan, 66. artikulua bisita erregimenari, egonaldiari, harreman eta komunikazioari buruz dihardu.

Azken bi artikulua hauen eraldaketa emakumeen eskubideak aldarrikatzen dituzten gizarte-taldeek galdatutako eskaeren erantzuna da. Eskaera hauen oinarrian

⁵³ Magro Servet, V. (2015) *Medidas incluidas en la Ley Orgánica 8/2015, de 22 de julio, y Ley 26/2015, de 28 de julio de modificación del sistema de protección a la infancia y a la adolescencia, afectantes a la violencia de género*. LA LEY 6045/2015. laleydigital360. 2.-3. orr. URL helbidea: http://www.laley.es/Marketing/Medidas_Ley_Org%C3%A1nica_8_2015.pdf

egunerokotasunean ematen ziren gertakizunak zeuden. Izan ere, erasotzaileak genero-indarkeriaren biktima ziren emakumeen seme-alabak erailtzen zituzten emakumeei ahalik eta kalte handiena egiteko. Egoera hau zela eta, aurreko legeak ez zuen erailketa horiek ekiditeko guraso ahala edo adingabeen zaintzaren etendura edota bisita, egonaldi, harreman edota komunikazio erregimenaren etetea aurreikusten.

Hortaz, gai horietan ezarritako neurri hauen bitartez babes eta segurtasun handiago bat esleitzen zaie genero-indarkeriaren biktima bikarioak diren seme-alaba hauei. (YUGUEROS GARCÍA)

Hortaz, argi dago, 8/2015 LOak aurrerapauso esanguratsua suposatu zuela biktima bikarioak diren seme-alaben babesari dagokionez. Izan ere, seme-alaba hauen bizia arrisku egoera objektibo batean jar ditzaketen egoerak erregulatu zituen: bisita erregimena edota tratu txarren emaile den gizonarekin izan zezaketen egonaldia eta elkarrizketak. Hortaz, eraldaketa honek haur hauen babeserako aurrerapauso kualitatiboa suposatu zuen.

Izan ere, gogoratu behar dugu seme-alaben erailketa gehienak aurretik aipatu ditugun 65 eta 66. artikuluetan jasotako egoeretan eman zirela - guraso ahala, zaintza eta bisita eskubideak-. Hori dela eta, lege organiko honen bitartez haurren segurtasuna areagotu da.

Lege Organiko honetaz gain, nahiz eta indarrean ez egon, 2021eko apirilak 13an Kongresuan Haurtzaroaren eta Nerabezaroaren Babeserako Neurri Integralen inguruko lege-proiektua⁵⁴ aurkeztu zuten. Eraldaketa honek, administrazioen jardueren printzipio zuzentzaile gisa adingabeak edozein motatako indarkeriaren aurka babestea izatea suposatzen du; baita familia eremuan gertatzen den indarkeria horretatik babestea ere. Hori dela eta, azken kasu horretan adingabeen interes gorena gailenduko da. Argi dago, honelako gai bati egindako legegintzarako hurbilketa orok jakintza-alor anitzeko ikuspegi batetik egitea galdatzen duela. Hori dela eta, hona hemen lege-proiektu honek aztertze ari garen gaien suposatzen dituen aldaketa nagusiak:

i. Hasteko, Lege-proiektu honetako III. Kapituluaren jaso den 27 bis artikulua berria arabera, familian genero-indarkeria ematen den kasuak arautzen dituen,

⁵⁴ 121/000022 Lege Organikoaren Proiektua, 2021eko apirilak 13koa. *Haurtzaro eta Nerabezaroaren babes Integralerako Lege Organikoaren Proiektuaren txostena*. Batzar Orokorretako Aldizkari ofizialean argitaratua. 22-3 zk.
URL helbidea: https://www.congreso.es/public_oficiales/L14/CONG/BOCG/A/BOCG-14-A-22-3.PDF

administrazio publikoek arreta jarri beharko diote genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen eta hauen seme-alaben eskubideen babesari. Honetarako seme-alabak arriskuan egon daitezkeen egoerak antzeman eta hauei erantzun zehatz bat emateko betebeharra izango dute administrazio publikoek. Beraz, genero-indarkeriaren biktima bikarioak izan daitezkeen seme-alaben babeserako aurrerapauso esanguratsuak emango dira ahalik eta babes osatuenena emateko mota honetako biktimei.

ii. Honetaz gain, Bigarren amaierako xedapenak Kode Zibileko 92, 94, 156 eta 158 artikulua eraldatzen ditu. Lehendabizi, 92. artikulua eraldaketaren bitartez banaketa, deuseztasun eta dibortzio prozeduretan adingabearen interes gorena sendotzen da. Bigarrenik, 94. artikulua eraldaketak adingabearen bizitza edota osotasun fisiko zein morala arriskuan egon daitekeen supostuetan bisita eta egonaldi erregimenak mugatu, eten edo deuseztapena suposatzen du. Hirugarrenik, 156. artikulua eraldaketak haurren sorospen psikologikoari egiten dio erreferentzia. Bigarren amaierako xedapen gehigarriarekin bukatzeko, 158. artikulua eraldaketak 94. artikulua ezartzen dituen neurri berberak ezartzen ditu guraso ahalari, zaintzari eta jagoletzari dagokienez.

iii. Beste alde batetik, Laugarren amaierako xedapenak ere aldaketa garrantzitsuak dakartza. Zehatzago, Justizia Administrazioako langileen prestakuntza bereziaren beharra jaso da (uztailak 1eko 6/1985 Botere Judizialeko Lege Organikoa⁵⁵).

iv. Bestalde, Bosgarren amaierako xedapena publizitateaz ari da. Laburbilduz, estereotipo sexista bat sustatzen duen publizitate oro debekatzen da.

v. Azkenik, Zortzigarren amaierako xedapenak Adingabeen Babeserako 1/1996 Lege Organikoa eraldatzen du arrisku egoeraren baloraziorako adierazleen deskribapenari dagokionez.

⁵⁵ 6/1985eko Lege Organikoa, uztailak 1koa. *Botere Judizialeko Lege Organikoa (BJLO)*. Estatuko Aldizkari Ofiziala. 1985eko uztailak 2an argitaratua (uztailak 3an indarrean sartu). 157 zk. URL helbidea: <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-1985-12666>

IV. JURISPRUDENTZIAN GENERO-INDARKERIAREN BIKTIMA BIKARIOAK DIREN SEME-ALABEI EMAN ZAIEN TRATAERA

1. Kasu esanguratsuren azterketa

Atal honetan, genero-indarkeriaren biktima bikarioak izan diren eta horren ondorioz hil dituzten seme-alaben kasuetan jurisprudentziak eman dituen erantzun desberdinak aztertuko ditugu. Hau da, 2015-2020 urteetan zehar emandako ebazpenetan trataera desberdina eman zaien edo ez aztertuko dugu.

Honetarako hautatutako epaiak orden kronologikoan aztertuko ditugu. Hau da, 2015eko uztailetik hasi eta 2020 urtean emandako epaiak aztertuko ditugu. 2015eko uztailetik aurrera emandako epaiak aztertzearen arrazoia uztailak 22ko 8/2015 Lege Organikoaren aplikazio praktikoa ezagutzea da. Honetarako, kontuan izan behar dugu azterlan honen - II. Tituluan aipatu genuen bezala - mota honetako erasogileen suizidio tasa oso altua dela. Hori dela eta, nahiz eta 2015-2020 urteen bitartean genero-indarkeriaren hilketen biktima izan ziren seme-alabak 27, erasogileetako askok - 11 erasogilek zehatzago- beren buruaz beste egin zuten eta ez dago epairik.

Hori dela eta honako hauek dira aztertuko ditugun sei epaiak: 1325/2017 epaia Pontevedrako Probintzia Auzitegiak emandakoa (PA, hemendik aurrera), 987/2018 epaia Almeriako PAak emandakoa, 1647/2018 Coruñako PAak emandakoa, 350/2019 epaia Cadizeko PAak emandakoa, 14469/2019 epaia Madrilgo PAak emandakoa eta 584/2019 Valentziako PAak emandakoa. Hori argi izanik, jo dezagun jurisprudentziaren azterketa egitera:

A. Pontevedrako Probintzia Auzitegiak, 4. atalak, 2017ko uztailak 24an eman zuen 1325/2017 epaia, Epaimahai bidezko Epaiketa⁵⁶.

Aztertuko dugun lehen kasua, Pontevedrako Probintzia Auzitegiak 2017ko uztailak 24an eman zuen 1325/2017 epaia da. Epai honen azterketarekin hasteko, egitateen deskribapen laburra egitea ezinbestekoa da:

2015eko uztailak 31an, Oubel jaunak, dibortzio prozeduran adostutako bisiten erregimenaz baliatuz, bere 9 eta 4 urteko alaben bizitzekin bukatzeko asmoz, erradial baten bitartez zauritu zituen lepoaldean eta arma zuri batekin lepoa moztu zien

⁵⁶ Pontevedrako Probintzia Auzitegia, 4. atala, Epaimahai bidezko epaiketa, 1325/2017 epaia, 2017ko uztailak 24an emandakoa.

berehalako heriotza eraginez. Are gehiago, Oubel jaunak aurretiaz bi adingabeei zenbait lasaigarri (Nordiazepam, Oxacepan eta Tizadinina) eman zizkien hauengan defentsa-gabezia eraginez.

Behin hau argi izanda, honako hau izan zen Epaimahaiko Auzitegiak eman zuen kalifikazio juridikoa (hirugarren oinarri juridikoa): *“Epaimahaiak frogatutzat jo dituen egitateak Zigor kodeak 139.1º artikulua 140.1º artikuluekin harremanetan arautzen duen gauzatutako bi hilketaren delitu gisa kalifikatzen dira⁵⁷”*.

Kalifikazio juridiko horretatik ondorioztatu daiteke ez zaiola inolako aipamenik egiten biktima horien amarengan eragindako kalte psikologikoari. Are gehiago, kasu honetan ez da frogaturik geratzen erasogilearen asmoa biktimen amarengan kalte bat eragitea zenik. Hots, ez da frogatzen adingabeen heriotzaren instrumentalizazioa emakumearengan genero-indarkeria eragiteko baliabide gisa erabili izana. Hala ere, aztertzen ari garen gaia dela eta, aipagarria da honelako kasuetan ezinbestez amari kalte psikologikoa eragiten zaiola eta, hortaz, sintomatikoa dela.

Halaber, erantzukizun zibila ezartzerakoan amari eragindako “kalte morala” kontuan izango dela adierazten da (seigarren oinarri juridikoa). Gainera, zigorra ezartzerakoan, zigor subsidiario gisa biktimen amari 1.000 metrotara hurbiltzeko debekua eta 30 urtez berarekin harremanetan jartzeko debekua ezarri zen. Hortaz, esan dezakegu, amari eragindako kalte psikikoa ez dela hilketaren delitu autonomo gisa tipifikatzen. Baizik eta bigarren mailako biktima gisa ulertzen da emakumea zigor osagarria ezartzerakoan.

B. Almeriako Probintzia Auzitegiak, 2. atalak, 2018ko ekainak 11an eman zuen 987/2018 epaia, Epaimahai bidezko Epaiketa⁵⁸.

Aztertuko dugun bigarren epaia, Almeriako Probintzia Auzitegiak 2018ko ekainak 11an eman zuen 987/2018 epaia da.

Epaia honetan, aurretik aztertu dugun 1325/2017 epaian gertatzen ez zen bezala, hiru dira aztertzen diren delitu posibleak: emakumearen aurkako indarkeriaren eremuan gauzatutako ohiko indarkeria, genero-indarkeriaren eremuan gauzatutako lesioak (aurrerago aipatuko ditugun adingabea hil eta ondoren honen amari eragindako lesio

⁵⁷ Itz. pr.

⁵⁸ Almeriako Probintzia Auzitegiko 2. atalak, 2018ko ekainak 11an eman zuen Epaimahai bidezko 987/2018 epaia.

fisikoengatik) eta hilketa delitua. Hortaz, argi dago, zer nolako harreman gatazkatsua zuten erasogileak eta adingabe/biktimaren amak. Gure azterketa azken delitu horretara mugatuko da; hau da, adingabearen hilketa delitua.

Egitatei dagokienez, 2016ko ekainak 24an, erasogileak bat-batean amankomunean zuten semea besoetatik kendu zion bere emazteari eta lurrera bota zuen birritan. Adingabea, burualdean jasan zituen kolpeen ondoriozko traumatismo burezur-entzefalokoaren eraginez izan zuen odol-galtze masiboa zela eta, berehala hil zen. Gertaera traumatiko honen ondorioz, biktimaren amak zenbait pairamen psikologiko sufritu zituen: antsietate handia, depresioa edota jasandako traumaren ondoriozko estresa.

Egitate hauen inguruan egindako kalifikazio juridikoa honako hau izan zen: *“Zigor Kodeko 139.1.1^a artikuluan araututako saldukeriaz egindako hilketa kualifikatua⁵⁹”*. Gainontzeko bi delituengatik ere zigortua izan zen erasogilea, baina honek ez dauka harremanik gure azterketarekin.

Berriz ere, ez zaio aipamenik egiten adingabearen amari eragindako lesio psikologikoei egitateen kalifikazio juridikoan. Are gehiago, aurretik aipatu dugun bezala, epai honetan adingabearen hilketaz gain beste bi delituengatik ere zigortzen dute. Horien artean, Zigor Kodeko 153.1 eta 3 artikuluan jasotako lesioengatik. Artikulu horretan, lesio fisikoetaz gain, lesio psikologikoak ere aipatzen dira. Baina, bigarren oinarri juridikoan lesio fisikoetaz soilik zigortua izango dela adierazten da.

Hala ere, epaian zehar frogaturik geratzen da erasogilearen nahia adingabeari bitzta kentzerakoan amari ahalik eta kalte handiena sortzea zela. Honen adierazgarri gisa zortzigarren eta bederatzigarren frogatutako egitateetan egiten diren azalpenak ditugu. Bertan, 2016ko maiatza eta ekainean erasogileak biktimaren amari egindako mehatxuak jaso dira. Mehatxu hauetan erasogileak adingabea hilko zuela adierazten zion honen amari: *“(…) éste manifestó reiteradamente que mataría al bebé de ambos recientemente nacido”*. Honen harira, prentsan adingabearen instrumentalizazioa jaso zuten hilketa honen pizgarri gisa: *“Condenado a 24 años por matar a su bebé de 45 días en Níjar (Almería) para dañar a su mujer⁶⁰”*.

⁵⁹ Itz. pr.

⁶⁰ Europa Press, Andalucía, Almería. Condenado a 24 años por matar a su bebé de 45 días en Níjar (Almería) para dañar a su mujer, 2019ko uztailak 19an argitaratua. URL helbidea: <https://www.europapress.es/andalucia/almeria-00350/noticia-ts-ratifica-condena-24-anos-hombre-mato-bebe-45-dias-nijar-almeria-danar-mujer-20190719143600.html>

Azkenik, ezinbestez aipatu beharra dago, aurreko kasuan bezala emakumearen pairamen psikologikoa honen kalte-ordaina kalkulatzeko erabilia izan zela: “*Se considera justa y en absoluto excesiva la suma reclamada por el Ministerio Fiscal y por la acusación particular en favor de Nuria, que abarca principalmente el dolor realmente irreparable propio de la muerte de su hijo y, también, los daños físicos y morales infligidos directamente a ella*”. Beraz, aurreko kasuan aipatu dugun bezala, emakumea bigarren mailako biktima gisa tipifikatzen da honi bere semearen hilketak eragindako kalte moralengatiko zigor osagarria ezartzerakoan.

C. Coruñako Probintzia Auzitegiak, 1. atalak, 2018ko urriak 16an eman zuen 1647/2018 epaia, Epaimahai bidezko epaiketa⁶¹.

Aztertuko dugun hirugarren epaia, 2018ko urriak 16an Coruñako Probintzia Auzitegiak eman zuen 1647/2018 epaia da. Kasu honetan, ezinbestekoa da adingabearen hilketa baino lehenagoko zenbait gertaera aipatzea.

Jokaera horiek argi islatzen dute zer nolako nahiak bideratuta jokatu zuen akusatuak bere semearen bizitzarekin bukatzerako orduan. Honetarako, 2008 urtera atzera egin behar dugu. Urte horretan, adingabearen amak dibortzioa eskatu baitzion akusatuari. Azken honek ez zuen onartu bere emaztearen erabakia eta une horretatik ia hilketaren unerarte bere emaztea mehatxatzeko mezuak bidali zituen (bere emazteari eta baita bere inguruko pertsoneri ere): “*Le mandó mensajes de contenido amenazante y alarmista con la pretensión de reanudar la relación*”. SMS mezuetaz gain, bere jazarpena mantendu zuen Facebook eta posta elektronikoko bitartez.

Jazarpen honen azken gertakaria bere emazte ohiaren nebari bidali zion honako mezu hau izan zen: “*La última palabra no está dicha en esta historia. El daño ya lo hicisteis hace tiempo y las dos únicas cosas que podían hacer daño, por suerte o fortuna, no están en vuestras manos... Todo en esta vida tiene un punto final... el caso es que nos guste a todos...*”.

Hau horrela izanik, 2017ko maiatzak 5-7 asteburuan, zegokion bisita erregimenaz baliatuz, akusatuak bere emazteari ahalik eta pairamen psikologiko handiena eragiteko asmoz bere semearen bizitzarekin bukatzea erabaki zuen.

⁶¹ Coruñako Probintzia Auzitegia, 1. atala (Emakumeen aurkako indarkerian espezializatua), 2018ko urriak 16an eman zuen Epaimahai bidezko 1647/2018 epaia.

Honetarako, zenbait kolpe jo zizkion burualdean bere semeari pala baten bitartez. Kolpeen ondorioz adingabea berehala hil zen.

Gertaera hau zela eta, adingabearen amak tratamendu psikiatriko eta psikologikoa eta laneko baja eskatu behar izan zituen.

Aipatutako egitate hauen kalifikazio juridikoari dagokionez, saldukeriaz gauzatutako hilketa delituaz gain (Zigor Kodeko 139.1.1^a artikulua 140.1 artikularekin harremanetan), Zigor Kodeko 148.4 artikuluan arautzen den lesio psikikoen erantzule eta egile deklaratu zuen akusatua epaimahaiak. Hortaz, laugarren oinarri juridikoan adierazten denez, epaimahaiak bere semearen heriotzaren ondorioz emakumeak jasaten duen pairamen psikikoa (lesioak) aintzat hartu zituen: *“No hay duda sobre la causalidad material, el padecimiento psíquico constatado objetivamente en Felicísima deriva directamente de la muerte violeta de su hijo”*.

Are gehiago, epaimahaik frogatutzat jo zuen akusatuak bere semearen aurkako delitua gauzatu zuela bere emazte ohiari aipatutako pairamen psikikoa eragiteko asmoz. Honen harira, genero arrazoietan oinarritutako inguruabar astungarria aipatzen da epaian zehar. Hau ere epaimahaiak frogatutzat jo zuen kasu honetan: *“En el caso de autos, el Jurado estimó probado por unanimidad que el acusado ejecutó la muerte de su hijo por razones de dominación y desprecio sobre la mujer, en concreto sobre la que había sido su esposa”*. Hortaz, epaimahaiaren aburuz, argi dago zein izan zen delitugilearen asmo zehatza bere semea hiltzerakoan: *“Reaccionó causando la muerte de su hijo para dañar de la forma más cruel que estaba a su alcance a su ex mujer”*.

Azkenik, instrumentalizazio honen emaitza juridiko-praktikoak ezagutzeko, Coruñaeko Probintzia Auzitegiak ezarritako zigorra aipatuko dugu. Adingabearen hilketa delituagatik espetxeratze iraunkor berrikusgarrira zigortu zuten akusatua (amari eragindako lesio psikikoekin konkurtsoan). Horretaz gain, zigor subsidiarioei dagokienez, emakumearen bizilekura, lan edo ikasketa zentrorra edo bera dagoen edozein lekura 1500 metrotara hurbiltzeko debekua eta honekin harremanetan jartzeko debekua espetxeratze iraunkor berrikusgarriak irauten duen epeak eta 5 urte gehiagotan ezarri zuten. Honetaz gain, biktimaren amari ordaindu beharreko 180.000 euroko kalte-ordainaz gain, honen laguntza medikoak sortutako gastuak ere ordaindu beharko zizkion SERGAS⁶²-ri.

⁶² Servizo Galego de Saúde (Galiziako Osasun Zerbitzua)

*D. Cadizeko Probintzia Auzitegiak, 8. atala, 2019ko azaroak 5ean emandako 350/19 epaia, Epaimahai bidezko epaiketa*⁶³.

Frogatutako egitateei dagokienez, 9 hilabeteko haur baten heriotza epaitzen da kasu honetan. Zehatzago, Arcos de la Fronterasen eman zen hilketa bat epaitzen da. Kasu honetan, 9 hilabeteko haur hori bere aitak lotan zegoela asfixiaz hil zuen 2017ko uztailak 1ean. Bere semea hil ostean, bere bikotekide ohia jo zuen honek bere semea lagundu nahi zuenean.

Aurreko epaian bezala (987/2018 epaian) hiru dira hemen ere aztertzen diren delitu posibleak: adingabearen hilketa, genero-indarkeriaren eremuko lesioak eta emakumearen haurkako tratu txarrak. Lehen bi delituak erlazionaturik daude. Izan ere, lesioen kalifikazio juridikoa hauraren hilketa egunean emakumeak jasan zituen lesioengatik egiten da. Azken delitu posiblea ez da nahiko frogatu eta beraz ezin zaio akusatuari leporatu.

Bere semearen hilketaren kalifikazio juridikora bueltatuz, Zigor Kodeko 139.1 artikuluan arautzen eta zigortzen den saldukeriaz egindako hilketa delitu gauzatu bat zela ebatzi zuen epaimahaiak. Hortaz, ez zaio aipamenik egiten amaren pairamen psikologikoari. Hala ere, kasu honetan epaian ez da adierazten akusatuaren aldetik adingabearen hilketaren instrumentalizaziorik egon zenik honen amaren aurkako genero-indarkeria gauzatzeko. Are gehiago, brote psikotiko batek jota jokatu zuela adierazten da epaian bertan: *“Creía recibir mensajes en su teléfono móvil que le decían “que tenía que asfixiar al bebé...”, “que pronto llegaría el Apocalipsis”, “que había una red extranjera compuesta por falsos apóstatas, que sabían que el Armagedon estaba cerca” etab.*” . Hau dela eta erantzukizuna salbuesten duen inguruabar osatugabe oso kualifikatua ezarri zioten akusatuari zigorra kalkulatzeko orduan. Hortaz, kasu hau ezingo litzateke barnebildu guk aztertzen dugun seme-alabak biktima bikario gisa erabiltzen dituzten kasuetan. Izan ere, bere gaixotasun mentalak jota jokatu zuen akusatuak.

Azken horren harira, zigor zehatza ezartzerakoan (23 urteko espetxe zigorra eta gaitasungabetze absolutua), hilketa delitua baino ez da aipatzen. Honen arrazoia erasogilearen salbuesle ez osoan aurkitzen dugu. Izan ere, inguruabar honek zigorraren

⁶³ Cadizeko Probintzia Auzitegia, 8. atala, 2019ko azaroak 5ean eman zuen Epaimahai bidezko 350/2019 epaia.

murrizketa dakar eta honek genero-indarkeriaren eremuko lesioengatik armak edukitzeko debekuaren zigorra suposatu dezake (Ministeritza Fiskalak zortzigarren oinarri juridikoan ematen duen zigorraren proposamena). Honi dagokionez lesio delituengatiko zigorra erantzukizun zibilean soilik islatzen da, 626 euroko kalte-ordaina ezartzen baita epaian.

Emakumearen figura eta pairamena kontuan hartzen den une bakarria zigorraren subsidiarioak ezartzerako unean da: emakumearen etxebizitzara, lan edo ikasketa zentrorra edota emakumea ohikotasunez doan bestelako leku batera 200 metrotan hurbiltzeko debekua eta honekin harremanetan jartzeko debekua 10 urtez. Are gehiago, semearen heriotzarengatiko kalte ordaina kalkulatzekoan ere kontuan hartzen da honen pairamen psikikoa (87.900 euro).

E. Madrilgo Probintzia Auzitegiak, 26. atalak, 2019ko urriak 30ean eman zuen 14460/2019 epaia, Epaimahai bidezko epaiketa⁶⁴.

Kasu honetan, Alcobendasen eman zen hilketa bikoitza epaitu zuen Madrilgo Probintzia Auzitegiak 14460/2019 epaian.

Lehenik eta behin, epaia honetan azaltzen diren egitate frogatuak aztertuko ditugu labur-labur. 2017ko maiatzak 2an, akusatuak bere bikotekidea eta honen 12 urteko semea hil zituen. Akusatua bere bikotekide eta honen semearekin batera bizi zen etxebizitza berdinean. Hori horrela izanik, emakumea bainugelan zegoenean eta ezusteko eran arma zuri baten bitartez 30 sastakada eman zizkion bere bizitzarekin bukatzeko asmoz. Zauri hauek eragin zioten odol-galtze ugariaren ondoriozko heriotza sufritu zuen emakume honek. Are gehiago, epaian bertan adierazten da eraso hau eragin zuen arrazoia emakume izatearen inguruabarra zela. Hau da, akusatuak ez zituen onartzen bere bikotekideak egiten zizkion bere jarreraren inguruko gaitzespenak emakume bat zelako. Azken hau astungarri gisa erabiltzen da genero arrazoietan oinarritutako inguruabarra ematen delako.

Era berean, hil berri zuen bere bikotekidearen semea egitateak gertatu ziren etxebizitza berdinean zegoen eraso gertatu zen unean. Akusatua biktimaren semea etxean zegoela konturatzerakoan, bat-batean erasotu zuen. Eraso honetan 16 sastakada

⁶⁴ Madrilgo Probintzia Auzitegiak, 26. atalak, 2019ko urriak 30ean eman zuen epaimahai bidezko 14460/2019 epaia.

eman zizkion eta bere bizitzarekin bukatzeko asmoz fular bat jarri zion lepoaldean. Bi biktimei bizia kendu ostean, akusatua Frantziara ihes egin zuen.

Egitate hauek zirela eta, honako kalifikazio juridiko hau ezarri zuen epaimahaiak hirugarren oinarri juridikoan: Zigor Kodeko 139.1.1^o eta 3^o eta 139.2 artikuluan araututako hilketa delitu bat bere bikotekidea hiltzeagatik eta Zigor Kodeko 139.1.1^a eta 140.1.1^a artikuluetan araututako hilketa delitu bat bere bikotekidearen semearen hilketagatik. Hau horrela izanik, argi dago kasu honetan ez zela adingabearen instrumentalizaziorik gertatu amari/emakumeari ahalik eta kalte handiena sortzeko. Izan ere, frogaturik dago adingabea bere ama hil eta gero hil zuela akusatua. Are gehiago, akusatuaren hasierako asmoa ez zen adingabea hiltzea.

Baina adingabea egin berri zuenaren lekuko izan zela konturatu zenean, hau ere hiltzea erabaki zuen.

F. Valentziako Probintzia Auzitegiak, 4. atala, 2019ko urriak 31an eman zuen 584/2019 epaia, Epaimahai bidezko epaiketa⁶⁵.

Azken kasu honetan, Alziran gertatu zen 2 urteko adingabe baten hilketa epaitzen du Valentziako Probintzia Auzitegiak 584/2019 epaian.

Egitateei dagokienez, 2017ko azaroak 12an, akusatua etxebizitzan bakarrik zegoen - adingabearen ama jasan zituen mehatxuak eta tratu txarrak salatzen atera baitzen- eta egoera honetaz baliatuz bere emaztearen bi urteko alaba hil zuen lotan zegoen bitartean. Akusatua egiten zuenaz guztiz jakitun eta adingabearen bizitzarekin bukatzeko asmoz jokatu zuen. Are gehiago, hilketa honen arrazoia bere emazteak dibortziatzeko zuen asmoa jakinarazi izana zen. Izan ere, akusatuaren nahia bere emazteari - adingabearen amari- ahalik eta kalte psikiko larriena eta konponezina eragitea zen.

Behin egitateak azalduta, jo dezagun epaimahaik ezartzen duen egitate hauen kalifikazio juridikoa aztertzen. Egitateen kalifikazio juridikoa ezagutzeko seigarren oinarri juridikora joko dugu. Bertan, honako kalifikazio juridikoa egin zen: *Zigor Kodeko 139.1.1* (saldukeriaz egindako hilketa), *140.1.1* (16 urte baino gazteagoa den biktima) eta *140 bis* artikuluetan araututako hilketa delitu bat eta - Zigor Kodeko 77.3

⁶⁵ Valentziako Probintzia Auzitegia, 4. atala, Epaimahai bidezko 148/2019 prozedura, 584/19 epaia, 2019ko urriak 31an emandakoa.

artikuluan araututako bitarteko konkurtsoan- 148.4 *artikuluan* araututako lesio psikikoak, emazteari eragindako kalte psikikoa zela eta.

Aurreko paragrafo horretatik ondorioztatu daiteke emakumeari eragindako sufrimendu psikologikoa aintzat hartzen duela epaimahaiak. Hortaz, badirudi emakumeari ahalik eta kalte handiena eragiteko instrumental gisa erabili zuela akusatuak adingabea. Azken baieztapen hau sustatzeko, epaian zehar aipatzen diren frogak. Honetarako, frogatutako egitateetan egiten den honako baieztapen honekin hasiko dugu azalpena: “ (...) *realizó el hecho anterior con la finalidad de causar un menoscabo psíquico grave y un perjuicio irreparable a su esposa y madre de la menor, después de que le comunicara su intención de divorciarse*”. Are gehiago, hirugarren oinarri juridikoan ere ideia berbera mantentze da. Bertan, argi uzten da akusatuak emakumeari behin baino gehiagotan hura mehatxatzeko asmoz honako esaldi hauek esan zizkiola: “*te voy a hacer daño donde más duele*” edota “*sin matrimonio no hay hija*”.

Hori dela eta, Epaimahaiko kideen aburuz, ez dago eztabaida posiblerik akusatuak emakumeari kalterik handiena sortzeko zuen nahiaz. Azken honen adibide da, adingabearen ama aurreko mehatxuak salatzeraz zihoan bitartean akusatuak telefono dei bat egin ziola bere alabaren “azken dardarak” entzun zitzan. Honen inguruan, Epaimahaiak zera esan zuen: “*lo primero que hizo para perpetrar con rotundidad el segundo delito fue participárselo a la segunda víctima.*” Hau da, adingabearen ama gauzatzen ari zen delituaren partaide egin zuen azken honi kalte zuzena eragiteko.

Honen harira, prentsan honako titulu honekin definitzen zuten hilketa hau: “*El parricida de Alzira confesó que mató a su hija para vengarse de su mujer*⁶⁶”. Hortaz, berriz ere azpimarratzen zen adingabeen hilketa emakumeei kalterik handiena sortzeko instrumental gisa erabilia izan zela.

Azkenik, emakumeari eragindako pairamenaren azken isla delitugileari ezarritako zigor zehatzetan ikus daiteke. Izan ere, aurreko kasuetan bezala, 10 urtez (espeteratze iraunkor berrikusgarriaren zigorra bukatzen denetik kontaktzen hasita) biktimaren amarengana 1.000 metrotara hurbiltzeko eta honekin harremanetan jartzeko debekua ezarri zuten zigor subsidiario gisa. Baita, 5 urtez biktimarengandik urruntzeko

⁶⁶ Domínguez, T. (2017) Levante, el mercantil valenciano. *El parricida de Alzira confesó que mató a su hija para vengarse de su mujer*. Valentzia. URL helbidea: <https://www.levante-emv.com/sucesos/2017/11/14/parricida-alzira-confeso-mato-hija-13855811.html>

ikuskatutako askatasuneko neurri gisa. Amaitzeko, erantzukizun zibilari dagokionez, adingabearen amari ordaindu beharreko kalte-ordaina ere zehaztu zuten (125.000 euro).

Behin epaiturik izan diren kasuetan eman zaien erantzuna aztertuta, badaude oraindik epaituak izan ez diren zenbait kasu. Honen adibide dira 2019 urtean Adejen eman zen hilketa bikoitza eta, baita, Esplugues de Llobregat-en 2020 urtean eman zena. Bi kasuetan seme-alabetaz gain hauen amak ere hil zituen erasogileak. Hortaz, ez dago hain argi seme-alaba hauek genero-indarkeriaren biktima bikarioak izan ziren edo ez. Zalantza hau argitzeko, justiziaren erantzunari itxaron beharko diogu.

2. Aztertutako kasu praktikoaren ondorioen azterketa

Behin epai desberdin hauek aztertuta, zenbait ondorio atera daitezke genero-indarkeriaren biktima bikarioak diren seme-alaben hilketei juridikoki eman zaien trataerari buruz.

Analisi zehatzarekin hasi baino lehen, ezinbestekoa da ikuspuntu orokorrago batetik genero-indarkeriaren biktima bikarioak diren seme-alaben gain gauzatutako indarkeriari ematen zaion trataera juridikoa ezagutzea. Azken honen inguruan esan beharra dago seme-alabak genero-indarkeriaren biktima bikario gisa kalifikatu direla 2015etik. Baina errealitatean, hauen gain gauzatutako indarkeria ez da genero-indarkeria gisa ulertzen era bateratuan sistema judizialean. Are gehiago, lehendabiziko aldiz kokatu ziren mota honetako kasuak Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Epaitegi berezien eskuduntzaren baitan 2018 urtean Coruñan eman zen 1647/2018 epaian⁶⁷. Azken kasu honetan, epaia eman zuen Probintzia Auzitegiko sala emakumeen aurkako indarkerian espezializatua baitzegoen. Izan ere, aztertutako zenbait kasuetan kasuak PAetara bideratu zituzten epaitegiak Instrukzioko epaitegiak (1325/2017 epaia eta 584/2019 epaia) edota epaitegi mistoa (350/2019 epaia) izan ziren. Probintzia Auzitegien eskumena, emakumeen aurkako indarkeria delituetan, 1/2004 LO-ko 58.4 artikuluan oinarritzen da -zigor eremuko eskuduntza-. Zehatzago, Epaimahai bidezko auzitegiak dira azterlan honetan aztertzen ari garen kasuetan eskuduntza dutenak⁶⁸.

⁶⁷ Aurretik aipatua.

⁶⁸ 5/1995 Lege Organikoa, maiatzak 22koa, *Epaimahai bidezko auzitegia arautzen dituen*a. Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratua, 1995eko maiatzak 23an, 122 zk. 1995eko azaroak 23an indarrean sartu zena. URL helbidea: <https://www.boe.es/eli/es/lo/1995/05/22/5/con>

Baina zein da Emakumeen Aurkako Indarkeriaren inguruko Epaitegien eskuduntzaren oinarri juridikoa? Kasu hauetan, Emakumeen Aurkako Indarkeriaren inguruko Epaitegi berezien eskuduntza 1/2004 LO⁶⁹ -ko 60. artikuluan oinarritzen da.

Artikulu honek Prozedura Kriminalaren Legea⁷⁰ -ri 17 bis artikulu berria gehitzen dio. Funtsean bi artikulu hauen arabera, Emakumeen Aurkako Indarkeriaren inguruko Epaitegiak eskumena izango dute emakumearen aurkako indarkeria gauzatzeko bitarteko gisa, delitu nagusiaren gauzatzea errazteko edota bere zigorgabetasuna bermatzeko erabiltzen diren bestelako delituetan ere. Hortaz, emakumeari ahalik eta kalte handiena eragiteko gauzaten diren seme-alaben hilketa delituak - guk azterlan honetan aztertu ditugun delituak - eskuduntza honen baitan kokatuko lirateke, genero-indarkeria gauzatzeko instrumental gisa erabiltzen baitira adingabeak eta hauen hilketak.

Hau argituta, jo dezagun aurreko atalean aztertutako epai zehatzen azterketa egitera. Lehenik eta behin, argi ikus daiteke Espainiako Gobernuko Berdintasun eta Genero-indarkeriaren aurkako Idazkaritza Orokorrak “Genero-indarkeriaren ondorioz hil dituzten adingabeak” deritzon txostenetan jaso dituen biktimak ez direla beti biktima bikarioak. Hau da, ez dira beti adingabe horien ama den emakumeari ahalik eta kalte handiena sortzeko bitarteko gisa erabiltzen. Izan ere, 2015-2020 urteen bitartean aztertu ditugun 6 epaietatik 3tan bakarrik ondorioztatu zen erasogilearen aldetik adingabearen instrumentalizazioa eman zela honen amari ahalik eta kalte handiena sortzeko - 987/2018 epaia, 1647/2018 epaia eta 584/2019 epaia-.

Bestalde eta bigarrenik, genero-indarkeriaren biktima gisa kalifikatu genitzakeen seme-alaba horien amei aztertutako epai horietan emandako trataera ere aintzat hartu beharreko ondorio bat da. Kasu guztietan, hildako adingabeen amen inguruko zigor subsidiarioak ezarri dira - hurbiltzeko eta komunikatzeko debekua - (salbuespena 14450/2019 epaian emakumea ere hil zuelako). Baita, erantzukizun zibilari dagokionez, hauei ordaindu beharreko kalte-ordainak ere ezarri dira. Kalte-ordainen zenbatekoei dagokienez, aniztasuna dago. Hau da, kasu gehienetan kalte-ordainaren zenbatekoa 120.000 -180.000 euro bitartean dago. Hala ere, 350/2019 epaian ezartzen den kalte-ordainaren zenbatekoa baxuagoa da: 87.900 euro. Kasu guztietan seme-alaba

⁶⁹ Aurretik aipatua.

⁷⁰ 1882ko irailak 14ko Errege Dekretua, *Prozedura Kriminalako legea onartzen duena*. Estatuko Aldizkari Ofiziala. 1882ko irailak 17an argitaratua, 260 zk. URL helbidea: <http://www.deusto-publicaciones.es/deusto/pdfs/derecho/derecho06.pdf>

baten heriotzak ama bati eragiten dion pairamen psikiko eta moralari egiten zaio erreferentzia zenbateko zehatza kalkulatzeko balorazio-irizpide gisa. Hortaz, seme-alaba baten heriotza kalte konponezin gisa ulertzen dute organo jurisdikzionaletan eta horren arabera proportzionala den kalte-ordainaren zenbatekoa erabakitzen dute.

Baina, harrigarria da emakume horiei eragindako kalte psikologikoaren inguruan ia adierazpenik ez egitea. Probintzia Auzitegiek hilketa hauek “genero-indarkeria gauzatzeko instrumental” gisa kalifikatu dituzten epaietan, 1647/2018 eta 584/19 epaietan emakumeei eragindako lesio psikikoengatik ere zigortzen dute erasogilea. Aldiz, 987/2018 epaian, emakumeari eragindako pairamen psikikoa zigor subsidiarioak eta erantzukizun zibila kalkulatzeko bakarrik kontuan izaten da.

Gainontzeko bi kasuetan, 350/19 eta 1235/2017 epaietan, ez zaie inolako aipamenik egiten hildako adingabeen amengan eragindako lesio eta pairamen psikikoari. Hortaz, berriz ere, guztiz babesgabe eta abandonaturik uzten dute emakumea bere pairamen psikikoan arreta jarri gabe. Berriz ere, zuzenbide patriarkalaren kontzeptura bueltatzen gara, non emakumearen figura eta bere sufrimendu psikologikoa ikusezin bihurtzen duten.

Justizia patriarkalaren kontzeptuak sor ditzakeen ondorioen artean, emakumeek honelako pairamen psikologikoa jasateko duten beldurra dago. Hau dela eta, genero-indarkeriaren biktima diren emakume askok ez dute salaketarik jartzen (edo jartzekotan kendu egiten dute ebazpen bat lortu baino lehen) tratu txarren emaileak berari edota bere seme-alabei eragin diezaiekeen kaltea ekiditeko. Are gehiago, seme-alaben hilketarekin bukatu den genero-indarkeria aurretiazko emakumearen aurkako indarkeriaren jarraipena izan da (VACCARO⁷¹). Hots, argi dago aztertutako epaiak oinarri izanda, emakumeek duten kalte hori jasateko beldurra guztiz justifikaturik dagoela. Hau da, badirudi tratu txarren emailea den gizona orokorrean ezin dela guraso on bat izan. Bere bikotekide ohiaren aurkako mendekotasun eta gorrotoak jota jokatzen baitu gauzatutako egintza guztietan. Honela emakumeari ahalik eta kalte handiena sortaraziko dio eta sistema juridikoa honen sopikuna izango da.

⁷¹ Aurretik aipatua.

Honen adibide praktiko gisa, 2018an Castellonen gauzatu zen hilketa bikoitza aipatuko dugu⁷². Bertan, aita batek bere bi alabak hil eta gero bere buruaz beste egin zuen. Adingabeen amak salaketa ugari jarri zituen jasan zituen mehatxuak zirela eta -bere alabak hilko zituela adierazi baitzion mehatxu gisa-. Beraz, esan daiteke, laguntza eta babes bila instituzio publikoetara (Emakumeen Zentroa adib.) eta sistema juridikora jo zuela eta hauek - ageriko era batean - huts egin ziotela. Ez zuten bere sorospen deia sinetsi eta erasogileak bere mehatxua bete zuen. Hau dela eta, adingabe horien familiak Estatua auzitara eramateko prozedura⁷³ hasi zuen 2019 urtean honen ondare erantzukizuna galdatzeko. Bere aburuz, bi adingabeak babesgabetasun egoera batean jarri zituzten amaren salaketei garrantzia kentzerakoan⁷⁴. Hori dela eta, bi eskaera aurkeztu zituen, bata Justizia Ministeritzan eta bestea Barne Ministeritzan. Lehendabiziko Ministeritzak 2020ko urtarrilak 20an erantzun zion bere eskaera artxibatuz. Erabaki hori argudiatzeko zera adierazi zuen: “Bi adingabeen hilketa garaian Espainiak ez zuen genero-indarkeriaren biktimak babesteko Europako Hitzarmena aplikatzen. Hau da, Istanbulko Hitzarmena⁷⁵ ”. Hau da, Estatuko Indar eta Segurtasun Gorputzek genero-indarkeria kasuetan arriskua kalkulatzeko erabiltzen zuten protokoloak ez zituen adingabeak eta seme-alabak aintzat hartzen. Esan beharra dago Protokolo hori egitateak gertatu ziren urte bereko - 2018an- martxoan eraldatu zela adingabeak barnebilduz⁷⁶.

Azken honen harira, ezinbestez aipatu beharra dago aurreko kasuaren aurrekari garrantzitsua: Ángela Gonzalez Carreñok Estatuaren aurka aurkeztu zuen salaketa⁷⁷.

⁷² Alvarez, P. (2019) “Denuncié, me dijeron que no pasaría nada y mis hijas ya no están”. El pais, Madrid. URL hebidea: https://elpais.com/sociedad/2019/03/23/actualidad/1553369290_857804.html

⁷³ Prozeduraren zenbakia ezagutzea ezinezkoa.

⁷⁴ Lourido, M. (2019) *La madre de las dos niñas asesinadas por su padre hace un año denuncia al Estado por desprotección*. Cadena Ser. Madrid. URL helbidea: https://cadenaser.com/ser/2019/10/03/sociedad/1570086161_917324.html

⁷⁵ Borraz, M. (2020) *Justicia reconoce que España incumplía una norma internacional cuando un padre asesinó a sus dos hijas en Castellón*. ElDiario.es. URL helbidea: https://www.eldiario.es/sociedad/justicia-espana-convenio-estambul-castellon_1_1135701.html

⁷⁶ Botere Judizialeko Batzorde Orokorra. *Protocolo de actuación de las Fuerzas y Cuerpos de Seguridad y coordinación con los órganos judiciales para víctimas de violencia doméstica y de género : (adaptado a la LO 1/2004, de Medidas de Protección Integral contra la Violencia de Género)*. 2005eko ekainak 28an argitaratua. URL helbidea: https://violenciagenero.igualdad.gob.es/profesionales/Investigacion/juridico/protocolos/docs/Protocolo_Actuacion_Fuerzas_Cuerpos_Seguridad_Coordinacion_Organos_Judiciales.pdf

⁷⁷ NBEko Emakumeen aurkako Bereizkeria Ezabatze Batzordea. *España sienta un precedente en el derecho internacional de los derechos humanos, afirman expertos de las Naciones Unidas en los derechos de la mujer*. Geneva, 2018ko azaroak 8. URL helbidea:

<https://www.ohchr.org/SP/NewsEvents/Pages/DisplayNews.aspx?NewsID=23849&LangID=S>

Emakume honen eta aurretik aipatu dugun emakumearen kasuak oso antzekoak dira. Bi kasuetan bere alaben hilketa baino lehen salaketa ugari jarri zituzten emakumeek inolako emaitzik edo konponbiderik gabe. Hau horrela izanik, bere alabaren erailketa eta gero (2003an hil zuen bere ezkontide ohiak), zenbait salaketa aurkeztu zituen Estatu mailan gobernuaren ondarezko erantzukizuna eta bere eskubideen urraketaren aitortpena eskatuz - Audientzia Nazionalan, AGean edota Konstituzio Auzitegian-. Baina ez zuen emaitzarik lortu.

Azkenik, 2012 urtean Gonzalez Carreño andereak NBEko Emakumearen aurkako Bereizkeria Ezabatze Batzordeari aurkeztu zion bere kasua. Erakunde honek 2014ko uztailak 16an eman zuen bere ebazpena (47/2012 Komunikazioa⁷⁸). Ebazpen honetan Espainiak Gonzalez Carreño anderearen giza eskubideak urratu zituela erabaki zuen. Hori dela eta, kalte-ordain bat ordaindu beharko zion Estatuak kaltetutako ama horri. Baina Gonzalez Carreño anderearen ibilbide judiziala ez zen hor bukatu, Auzitegi Gorenera iritsi behar izan zen. AGak, apelazioan eta 1263/2018 epaian⁷⁹, NBEko Batzordeak egindako gomendioak betetzea agindu zuen eta Gobernuak 600.000 euro ordaindu beharko zizkion Gonzalez Carreño andereari honek jasan zituen kalte moralen kalte-ordain gisa.

V. ONDORIO OROKORRAK

Lanean zehar genero-indarkeriaren biktima bikarioak diren seme-alaben kontzeptu eta errealitate praktikoa aztertu ditugu. Hau da, “biktima bikario” baten hitzez-hitzezko definizioa zehaztu eta gero, genero-indarkeriaren ondorioz hil dituzten seme-alaben errealitate praktikoa ezagutu dugu. Azken honen baitan, Nazioarte, Europa zein Estatu mailan haur hauen eskubideak babesteko sortutako tresna juridikoak ezagutzea ere ezinbesteko pausoa izan da. Hau da, haurrek eta nerabeek edozein

⁷⁸ 47/2012 Komunikazioa, *Dictamen del Comité para la Eliminación de la Discriminación contra la Mujer en virtud del Protocolo Facultativo de la Convención sobre la eliminación de todas las formas de discriminación contra la mujer* (58º período de sesiones) 2014ko uztailak 16an eman zuen Ebazpena. URL helbidea:

<http://docstore.ohchr.org/SelfServices/FilesHandler.ashx?enc=6QkG1d%2FPPrCAqhKb7yhsIEELoUVuU1rtqrRBladIK2rtkwIOP%2BIHPP1JBJnl1ZoADsBZv89NuU0iAp%2Bmg%2BiLCbpxipugoayCgYD2pL9f35JJ7Hhe6P68gD8U%2FizHsI5%2B4VjB4zp63ZP9vE%2FPiGn1A%3D%3D>

⁷⁹ 2018ko uztailak 17an Auzitegi Goreneko auzi administratiboen atalak emandako 1263/2018 epaia. URL helbidea:

<https://noticias.iuridicas.com/actualidad/jurisprudencia/13166-condenado-el-estado-a-pagar-600-000-euros-a-una-mujer-cuya-expareja-asesino-a-su-hija-en-una-visita-no-vigilada/#:~:text=En%20la%20sentencia%201263%2F2018,estableci%C3%B3%20un%20juzgado%20de%20Madrid>

motatako indarkeriaz babestuak izateko eskubidea dute. Baina, errealitatean badirudi babes hori ez dela guztiz gauzatu.

Atal honetan aztertzen ari garen ondorio orokorretara bueltatuz, lanean zehar agertutako zenbait itzalguneekin hasia beharrezkoa da. Izan ere, azken hauek haurren babesgabezia instituzionala sortzen dute eta, bide batez, arrisku egoeran jartzen dituzte. Honen isla da genero-indarkeriaren biktimen baitan ez dela ezartzen honen ondorioz hiltzen dituzten seme-alaben inguruko araudi edo jarraibide zehatzik. Hau da, seme-alaba hauen hilketak saihesteko neurriak hartu dira; baina, nahiko al dira neurri horiek? Zer gertatzen da dagoeneko hilketa hori gauzatu denean? Zer nolako babesa eta laguntza esleitzen zaio haur horien amari?

Galdera hauei erantzuteko, esan beharra dago azken urteotan aurrerapauso esanguratsuak eman direla eta ematen ari direla gai honetan⁸⁰; baina, ba al dira nahiko? Honi erantzuteko, bitan banatuko dugu gure ondorio orokorren analisisia:

- I. Lehenik eta behin, araututako neurri prebentiboei dagokienez, errealitateko datuetara bueltatzen bagara, erantzuna ezezkoa da. Hau da, uztailak 22ko 8/2015 Lege Organikoan adingabe hauek babesteko zenbait neurri hartu zituzten - zaintza, jagoletza, bisita... erregimenekin lotutakoak-. Baina, 2017an, Espainiar Estatuko Gobernuko berdintasun eta genero-indarkeriaren aurkako Idazkaritza Orokorrak emandako datuen arabera, 8 izan ziren genero-indarkeriaren ondorioz hildako seme-alabak; hau da, genero-indarkeriaren ondorioz hildako adingabeen datuak jasotzen hasi zirenetik - 2013tik- zenbatekorik altuena. Are gehiago, urte horretan kokatzen den 1647/2018 epaia⁸¹ da baieztapen honen adibide argia. Bertan, delitugilea dibortzioaren baitan adostutako bisita erregimenaz baliatu zen bere semea hiltzeko. Hortaz, argi dago emandako aurrerapausoak ez direla nahiko izan.

Honen harira, Botere Judizialeko Kontseilu Nagusiak emandako datuen arabera, Espainian genero-indarkeria dagoen kasuetako % 3,1-an bakarrik eten zitzaion aitari bere seme-alaben gaineko zaintza. Honetaz gain, mota honetako

⁸⁰ Adib. uztailak 22ko 8/2015eko Lege Organikoa edota 121/000022 Lege Organikoaren proiektua.

⁸¹ Coruñaeko Probintzia Auzitegia, 1. atala, 2018ko urriak 16an eman zuen Epaimahai bidezko 1647/2018 epaia.

kasuen % 5,2-an soilik epaileak ez die aitei bisitarako eta bere seme-alabekin harremana izateko baimena ematen (VACCARO⁸²).

Azken honekin harremanetan, Herriaren Defendatzaileak 2020an genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen seme-alaben inguruko zaintza, jagoletza eta bisita erregimenei buruz eman zuen jakinarazpena⁸³ aipagarria da. Egoera honetan aurkitzen diren seme-alaben arrisku egoera hori ekiditeko instituzio honek emandako neurrien pizgarria 2018-2019 urteetan gertatutako bi hilketak izan ziren: 2018an Castellonen (Dos Hermanasen) eta 2019an Murtzian (Benielen) eman ziren 3 seme-alaben hilketak. Bi kasuetan, delitugileak zegokien bisita erregimenaz baliatu ziren hilketak gauzatzeko. Hilketak eta gero, bi delitugileek beren buruaz beste egin zuten.

Jakinarazpenera bueltatuz, genero-indarkeriarengatik arriskuan egon daitezkeen seme-alaben babeserako neurriez gain, Herriaren Defendatzaileak genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen seme-alaben arrisku egoera zenbatesteko tresna zehatz bat garatzea proposatu zuen. Honetaz gain, familien topaketa lekuetan arrisku egoeraren bat ematekotan horien berri emateko protokolo bateratu bat egotea ere proposatu zuen. Hala ere, nahiz eta Gobernuak Justizia Ministeritzak Herriaren Defendatzailearen proposamenak onartu (121/000022 Lege Organiko Proiektua⁸⁴), oraindik ez da gauzatu eskaera hauen emaitza praktikoa. Hortaz, seme-alaba hauek ageriko arrisku egoeran egoten jarraituko dute Haurtzaroaren eta Nerabezaroaren Babeserako Lege Organiko berria argitaratu eta indarrean sartu arte.

Are gehiago, II. Tituluko A. atalean aipatu genuenez, gure lurralde-eremuan gurasoen banaketa edo dibortzioa ematen den kasuetan familia-harremanak arautzen zituen 7/2015 Legea eraldatzeko proposamena egin zuen EH Bilduk. Eusko Jaurlaritzak eskaera hori onartu zuen; nahiz eta proposamen horren onarpenak Eusko Jaurlaritzaren eskumen esparrua

⁸² Aurretik aipatua.

⁸³ Herriaren Defendatzailea (2020), *El gobierno acepta recomendaciones del defensor del pueblo para mejorar la protección de los menores víctimas de violencia de género*. URL helbidea: <https://www.defensordelpueblo.es/noticias/regimen-visitas-guarda-custodia-los-menores/>

⁸⁴ 121/000022 Lege Organikoaren Proiektua, 2021eko apirilak 13koa. *Haurtzaro eta Nerabezaroaren babes Integralerako Lege Organikoaren Proiektuaren txostena*. Batzar Orokorretako Aldizkari ofizialean argitaratua. 22-3 zk. URL helbidea: https://www.congreso.es/public_oficiales/L14/CONG/BOCG/A/BOCG-14-A-22-3.PDF

gainditzeko arriskua izan. Hortaz, egon badaude seme-alaben arrisku egoera hori ekiditeko proposamenak; baina oraindik ez daude indarrean.

- II. Ondorio orokorren bigarren atalari dagokionez, hildako seme-alaben amei juridikoki eman zaien babes eta laguntzan ardaztuko dugu gure azterlana. Lan honen IV. tituluaz aztertu genituen epaietan, egoera hauei erantzuteko amankomuneko erantzun bateratua ez dagoela argi geratu zen. Hau kontuan izanik, ezinbestekoa da generoaren inguruabarra agertzen den seme-alaben hilketatik aplikatu beharreko araudi zehatza egotea. Araudi honen baitan, hilketa delituaz gain, honen ondorioz seme-alaba horien amei eragindako pairamen psikologikoa ere zigortu beharko litzateke kasu orotan.

Honen harira, aurreko tituluaz emakumearen pairamen psikologikoa zuzenbide patriarkalarekin duen harremana aipatu dugu. Pairamen honi merezi duen garrantzi juridikoa emateko, ezinbestekoa da justiziak genero ikuspegia ezartzea legeen interpretazioa egiterakoan. Hau da “*pater familias*”-en figura desagerraraztea funtsezkoa da. Hau da, FALCONE⁸⁵-k genero eta feminismoaren inguruan adierazi zuen iritziari erreferentzia eginez, erromatar garaian jatorria duen familia patriarkalaren ideia bueltatzen gara. Erromatar garaiko familian, “*pater familias*”-a etxearen eta familiako kide guztien jabea zen. Beraz, bere tutoretzapean zeuden bere emaztea eta seme-alabak. Hortaz, esan genezake “*pater familias*”-ak bere familiako kideen gaineko agintea zuela bere guraso ahalaren - patria potestad- ondorioz. Hori dela eta, familiaren baitan bera zen legea eta gainontzeko familiako kideek bere aginduak bete behar zituzten. Honek familiaren gaineko jabetza sentimendua sortzen zion gizonari. Jabetza sentipen hau genero-indarkeriaren pizgarria den emakumeak gizonarengan duen menpekotasunarekin parekatu daiteke. Horrenbestez, berdintasunean oinarritutako gizarte demokratiko batean ezinbestekoa da erromatar garaiko figura zaharkitu hori desagerraraztea.

Azken honen bitartez, era bateratuan ulertuko liratekeelako emakumeen aurkako genero-indarkeria eta azken hau gauzatzeko delitugileak erabilitako

⁸⁵ Falcone, R. (2016) *Género y familia. Reflexiones sobre la autoridad en la familia patriarcal y su vigencia en las sociedades contemporáneas. Reflexiones sobre la autoridad en la familia patriarcal*. VIII Congreso Internacional de Investigación y Práctica Profesional en Psicología XXIII Jornadas de Investigación XII Encuentro de Investigadores en Psicología del MERCOSUR. Facultad de Psicología - Universidad de Buenos Aires, Buenos Aires. 75-76 orr. URL helbidea: <https://www.academica.org/000-044/18>

indarkeria - seme-alaben hilketak-. Izan ere, emakume batekin oldarkorra izan den gizona gai izango da bere aburuz “bere jabetzakoa” den horri kalte konponezina eragiteko bere kontrolarekin jarraitzeko. Azken finean, genero-indarkeriaren emaileak objektu gisa ikusten ditu seme-alabak; hau da, guztiz despertsonalizatzen ditu.

Hortaz, adierazitakoa laburbiltzeko ezinbestekoa da sistema juridikoa genero perspektibarekin eraberritzea emakumeon eskubideak babestearren. Hau da, genero-indarkeriaren arazoari aurre egiteko beharrezkoa da emakumeei tresna juridiko egokiak eskaintzea eta horretarako bide bakarria genero perspektiba gure egunerokotasunean eta instituzioetan barnebiltzea da.

VI. BIBLIOGRAFIA ETA ITURRIAK

A. ESKULIBURU ETA BERRIAK

ALVAREZ, P. (2019) “*Denuncié, me dijeron que no pasaría nada y mis hijas ya no están*”. El país, Madrid, 2019ko martxoak 25ean argitaratua. URL hebidea: https://elpais.com/sociedad/2019/03/23/actualidad/1553369290_857804.html

AVILÉS PALACIOS, L. (2021) *Justicia en clave feminista: Reflexiones en torno a la inserción de la perspectiva de género en el ámbito judicial, Capítulo VI: La ratificación por la Unión Europea del Convenio del Consejo de Europa sobre prevención y lucha contra la violencia contra la mujer y la violencia doméstica. Entre el desideratum y la realidad*. 3. atala. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua. 83-91 orr. ISBN. 978-84-1319-315-1. URL hebidea: <https://web-argitalpena.adm.ehu.es/pdf/USPDF213151.pdf>

BORRAZ, M. (2020) *Justicia reconoce que España incumplía una norma internacional cuando un padre asesinó a sus dos hijas en Castellón*. ElDiario.es, 2020ko otsailak 13an. URL hebidea: https://www.eldiario.es/sociedad/justicia-espana-convenio-estambul-castellon_1_1135701.html

BORREGO MUÑOZ, G. (2014). *El sistema de protección de menores*. DEDiCA. Revista de educação e humanidades, 6 zk. (2014), 88-89 orr. URL hebidea: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=4733980>

CANETTA, E. & MEURENS, N. & MCDONOUGH, P. & RUGGIERO, R. (Europako Parlamentua) (2012), *EU Frame work of Law for Children's Rights*, URL hebidea: [https://www.europarl.europa.eu/RegData/etudes/note/join/2012/462445/IPOL-LIBE_NT\(2012\)462445_EN.pdf](https://www.europarl.europa.eu/RegData/etudes/note/join/2012/462445/IPOL-LIBE_NT(2012)462445_EN.pdf)

CANET-BENAVENT, E., eta MARTÍNEZ-MARTÍNEZ L. (2019). *Reacción patriarcal contra los avances en materia de violencia machista*. *Búsqueda*, 6(23), 469–469. <https://doi.org/10.21892/01239813.469>

CAMPOS, A., BOSCH, E. eta ARAGUREN, J. (2020) *Berdintasunerako Politikak, Emakume eta Gizonen Berdintasunaren Masterra: Berdintasun Eragileak, Emakumezkoen Aurkako Indarkeria* (5), Euskal Herriko Unibertsitatea.

CASTILLERO, O. (datarik gabe.) *¿Qué es la violencia vicaria?. Un tipo de violencia indirecta que sufren los más desprotegidos: los niños*. *Psicología y Mente*. URL helbidea:

<https://psicologiaymente.com/forense/violencia-vicaria#:~:text=La%20violencia%20vicaria%20es%20un,forma%20secundaria%20a%20la%20principal>

CORDERO MARTÍN, G.& LÓPEZ MONTIEL, C. & GUERRERO BERBERÁN, A.I. (2017). *Otra forma de Violencia de Género: La instrumentalización. “¿Dónde más te duele!”*. *Documentos de Trabajo Social* (59), 170-189. URL helbidea: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=6588970>

DIMITROVA-STULL, A. (2014) European Parliamentary Research Service (EPRS), *Violence towards children in the EU: current situation*, ISBN 978-92-823-6160-3

DOMÍNGUEZ, T., (2017) Levante, el mercantil valenciano. *El parricida de Alzira confesó que mató a su hija para vengarse de su mujer*. 2017ko azaroak 14a. Valentzia. URL helbidea:

<https://www.levante-emv.com/sucesos/2017/11/14/parricida-alzira-confeso-mato-hija-13855811.html>

EUROPA PRESS (2019) *Condenado a 24 años por matar a su bebé de 45 días en Níjar (Almería) para dañar a su mujer*, Andalucía, Almería. 2019ko uztailak 19an argitaratua. URL helbidea:

<https://www.europapress.es/andalucia/almeria-00350/noticia-ts-ratifica-condena-24-anos-hombre-mato-bebe-45-dias-nijar-almeria-danar-mujer-20190719143600.html>

FALCONE, R. Género y familia. (2016) *Reflexiones sobre la autoridad en la familia patriarcal y su vigencia en las sociedades contemporáneas. Reflexiones sobre la autoridad en la familia patriarcal. VIII Congreso Internacional de Investigación y Práctica Profesional en Psicología XXIII Jornadas de Investigación XII Encuentro de Investigadores en Psicología del MERCOSUR*. Facultad de Psicología - Universidad de Buenos Aires, Buenos Aires. 75-76 orr. URL helbidea: <https://www.academica.org/000-044/18>

FEDERACIÓN DE ASOCIACIONES DE MUJERES SEPARADAS Y DIVORCIADAS. *Estadísticas. Menores asesinados víctima de la violencia de género* (2013,2014,2015,2016,2017,2018,2019 eta 2020ko taulak) URL helbidea: <https://www.separadasydivorciadas.org/estadisticas/>

FERRO, L. (2019) *“El niño superviviente del doble asesinato de Adeje no sabe aún que su madre y hermano han muerto”*. *La Vanguardia*, Bartzelona, 2019ko apirilak 30. URL helbidea:

<https://www.lavanguardia.com/sucesos/20190430/461968162874/nino-supervivente-doble-asesinato-adeje-desconoce-muerte-familiares.html>

HERRIAREN DEFENDATZAILEA (2020) *El gobierno acepta recomendaciones del defensor del pueblo para mejorar la protección de los menores víctimas de violencia de género.* URL helbidea:

<https://www.defensordelpueblo.es/noticias/regimen-visitas-guarda-custodia-los-menores/>

LEIVA RODRÍGUEZ, B. & GARCÍA GARNICA, M^a C. (2016) *Análisis de las instituciones del sistema de protección de menores: Y su reforma por la Ley Orgánica 8/2015 y la Ley 26/2015 (I)*, El genio maligno, revista de humanidades y ciencias sociales, 19 zk. ISSN: 1988-3927 URL helbidea: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=6765864>

LOURIDO, M. (2019) *La madre de las dos niñas asesinadas por su padre hace un año denuncia al Estado por desprotección.* Cadena Ser. Madrid. 2019ko urriak 3an argitaratua. URL helbidea: https://cadenaser.com/ser/2019/10/03/sociedad/1570086161_917324.html

MAGRO SERVET, V. (2015) *Medidas incluidas en la Ley Orgánica 8/2015, de 22 de julio, y Ley 26/2015, de 28 de julio de modificación del sistema de protección a la infancia y a la adolescencia, afectantes a la violencia de género.* LA LEY 6045/2015. 2015eko abenduak 12, laleydigital360. 2-3 orr. URL helbidea: http://www.laley.es/Marketing/Medidas_Ley_Org%C3%A1nica_8_2015.pdf

MARCHIORI, H., & FORTETE C. (2011). *Ley y víctima : panorama internacional* (1a ed., Ser. Victimología, 10). Brujas. URL helbidea: <https://elibro-net.ehu.idm.oclc.org/es/ereader/eHu/76588?page=1> 31-32 orr.

MORALEDA, A. (2017) “2016 cierra con un menor víctima de violencia machista”, El País. 2017ko irailak 27. URL helbidea: https://elpais.com/politica/2017/01/27/actualidad/1485521119_491446.html

OVERLIEN, C. & HOLT, S. (2019) *European Research on Children, Adolescents and Domestic Violence: Impact, Interventions and Innovations*, Springer Science+Business Media, LLC, part of Springer Nature 2019 URL helbidea: <https://link.springer.com/article/10.1007/s10896-019-00067-x>

PERAL LÓPEZ, M.C. (2018). *Madres maltratadas : violencia vicaria sobre hijas e hijos* (Ser. Atenea : estudios de género). Malagako Unibertsitateko Argitalpen eta Zabalkuntza Zientifikorako Zerbitzua. URL helbidea: <https://public.ebookcentral.proquest.com/choice/publicfullrecord.aspx?p=5636480>

PÉREZ, J.A.(2018) *El daño de la violencia de género en menores: 23 asesinados y 185 huérfanos en cinco años.* InfoLibre. 2018ko otsailak 19. URL helbidea: https://www.infolibre.es/noticias/opinion/plaza_publica/2018/02/28/los_menores_asesinados_por_violencia_genero_multiplican_por_ultimo_ano_75394_2003.html

PÉREZ-RIVAS, N. (2017). *El modelo europeo de estatuto de la víctima*. Dikaion Revista De Fundamentación Jurídica, 26 (2), (266. 269 orr.) URL helbidea: <https://doi.org/10.5294/dika.2017.26.2.3>

RODES LLORET, F. & MOREN OLMOS, C.E. & PASTOR BRAVO, M. (2010) *Vulnerabilidad infantil un enfoque multidisciplinar*. 1. atala (La vulnerabilidad del menor). Díaz de Santos argitaletxea. 1-5 orr. URL helbidea: https://www.researchgate.net/profile/Jose-Garcia-Del-Castillo/publication/236008889_Vulnerabilidad_Infantil/links/00b7d515a224262387000000/Vulnerabilidad-Infantil.pdf

SÉRGIO PINHEIRO. P. (haurren aurkako indarkeriaren inguruko Nazio Batuen Erakundeko Idazkaritza Orokorra agindutako aditua) (2010) *Informe mundial sobre la violencia contra los niños y niñas*. Observatorio de la Infancia. 47-51 orr. URL helbidea: <https://observatoriodelainfancia.vpsocial.gob.es/productos/pdf/informeMundialSobreViolencia.pdf>

VACCARO, S. (2016) *Violencia Vicaria: Las hijas/as que son víctimas de la Violencia para dañar a sus madres*, 18/03/2016, Tribuna Feminista, URL helbidea: <https://tribunafeminista.elplural.com/2016/03/violencia-vicaria-las-hijas-y-los-hijos-victimas-de-la-violencia-contra-sus-madres/>

VACCARO, S. (2018). *La justicia como instrumento de la violencia vicaria: la ideología del pretendido “sSAP” y la custodia compartida impuesta*. Consello da Cultura Galegak argitaratua. URL helbidea: http://consellodacultura.gal/mediateca/extras/CCG_ac_2018_novasformasviolenciaren_soniavaccaro.pdf

YUGUEROS GARCÍA, A.J. (2016). “*La protección de los menores víctimas de violencia de género en España*”. Aposta. Revista de Ciencias Sociales, 70, 38-52, URL helbidea: <http://apostadigital.com/revistav3/hemeroteca/yugueros1.pdf>

B. BESTE ITURRIAK

a) ARAUAK

I. Nazioarte mailakoak

NBE BATZORDE OROKORRA (1959) *Declaración de los Derechos del Niño*, resolución 1386 (XIV), de 20 de noviembre de 1959, URL helbidea: <https://www.cidh.oas.org/Ninez/pdf%20files/Declaraci%C3%B3n%20de%20los%20Derechos%20del%20Ni%C3%B1o.pdf>

NBE BATZORDE OROKORRA. (1985) 40/34 ebazpena, 1985eko azaroak 29koa, *delituen eta botere-abusuaren biktimentzako justiziaren oinarrizko printzipioei buruzko adierazpena onartzen duena*. URL helbidea: <http://www.un.org/es/comun/docs/>

NBEⁿ BATZORDE OROKORRA. (1993) A/RES/48/104. 1993ko abenduak 20. *Declaración sobre la eliminación de la violencia contra la mujer*. URL helbidea: <https://www.acnur.org/fileadmin/Documentos/BDL/2002/1286.pdf?file=fileadmin/Documentos/BDL/2002/1286>

NBE. (2002) *Un mundo apropiado para los niños - Un programa que es al mismo tiempo visionario y concreto*. 2002ko maiatzak 8-10. I. Titulua 7. atala 6. helburua. (itz. pr.) URL helbidea: <https://sites.unicef.org/spanish/specialsession/documentation/documents/A-S27-19-Rev1S-annex.pdf>

NBE BATZORDE OROKORRA. A/61/299 Txostena. 2006ko abuztuak 29. *Informe del experto independiente para el estudio de la violencia contra los niños de las Naciones Unidas*, 14-17 orr. URL helbidea: https://www.bienestaryproteccioninfantil.es/imagenes/tablaContenidos03SubSec/SG_violencestudy_A-61-299_ES.pdf

NBE. CRC/C/GC/13, (2011) *Convention on the Rights of the Child*, General comment No. 13, 2011ko apirilak 18, URL helbidea: https://www2.ohchr.org/english/bodies/crc/docs/CRC.C.GC.13_en.pdf

II. Europa mailakoak

EUROPAKO PARLAMENTUA. (1992) 3-0172/92 Ebazpena, 1992ko uztailak 8koa, *Haurraren eskubideen inguruko Europako Gutunaren ingurukoa*. URL helbidea: https://www.bienestaryproteccioninfantil.es/imagenes/tablaContenidos03SubSec/carta_europ_derechos_inf.pdf

EUROPAR BATASUNEN BATZORDEA. (2006) *'Towards an EU Strategy on the Rights of the Child'* 4/7/2006 - COM 2006 367 Final. Brusela, 2006ko uztailak 4. URL helbidea: <https://eur-lex.europa.eu/legal-content/EN/ALL/?uri=celex:52006DC0367>

EUROPAR KONTSEILUA. *Instrumento de ratificación del Convenio del Consejo de Europa sobre prevención y lucha contra la violencia contra la mujer y la violencia doméstica, hecho en Estambul 11 de mayo de 2011* (2014), Estatuko Aldizkari Ofiziala, 137, 2014ko ekainak 6an, 42946-42976. URL helbidea: [https://www.boe.es/eli/es/ai/2011/05/11/\(1\)](https://www.boe.es/eli/es/ai/2011/05/11/(1))

EUROPAR PARLAMENTUA ETA KONTSEILUA. 2012/29/EB Zuzentaraua, 2012ko urriaren 25ekoa, *delituen biktimen eskubideei, laguntzari eta babesari buruzko gutxieneko arauak ezartzen dituen*, URL helbidea: <https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:32012L0029&from=GA>

III. Estatu mailakoak

1882ko irailak 14ko Errege Dekretua, *Prozedura Kriminaleko legea onartzen duena*. Estatuko Aldizkari Ofiziala. 1882ko irailak 17an argitaratua, 260 zk. URL helbidea: <http://www.deusto-publicaciones.es/deusto/pdfs/derecho/derecho06.pdf>

6/1985eko Lege Organikoa, 1985eko uztailak 1ekoa. *Botere Judizialeko Lege Organikoa (BJLO)*. Estatuko Aldizkari Ofiziala. 1985eko uztailak 2an argitaratua (uztailak 3an indarrean sartu). 157 zk. URL helbidea: <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-1985-126>

5/1995 Lege Organikoa, 1995eko maiatzak 22koa, *Epaimahai bidezko auzitegia arautzen dituena*. Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratua, 1995eko maiatzak 23an, 122 zk. 1995eko azaroak 23an indarrean sartu zena. URL helbidea: <https://www.boe.es/eli/es/lo/1995/05/22/5/con>

Abenduak 11ko 35/1995 Legea, *indarkeria eta askatasun sexualaren kontrako delituen biktimei ematen zaizkien laguntzak arautzen dituena*. Estatuko Aldizkari Ofiziala, 296 zk., 1995eko abenduak 12, URL helbidea: <https://www.boe.es/eli/es/l/1995/12/11/35/con>

1/1996 Lege Organikoa, 1996ko urtarrilak 15ekoa, *Adingabearen Babes Juridikoaren ingurukoa, Kode Zibilaren eta Prozedura Zibilaren Legearen eraldaketa partziala suposatzen duena*. Estatuko Aldizkari Ofiziala, 1996ko urtarrilak 17an argitaratua. URL helbidea: <https://www.boe.es/eli/es/lo/1996/01/15/1/con>

1/2004 Lege Organikoa, 2004ko abenduak 28koa, *Genero Indarkeriaren Aurkako Babes Neurrien ingurukoa*. Estatuko Aldizkari Ofiziala, 2004ko abenduak 28an argitaratua. URL helbidea: <https://www.boe.es/eli/es/lo/2004/12/28/1/con>

BOTERE JUDIZIALEKO BATZORDE OROKORRA. *Protocolo de actuación de las Fuerzas y Cuerpos de Seguridad y coordinación con los órganos judiciales para víctimas de violencia doméstica y de género: (adaptado a la LO 1/2004, de Medidas de Protección Integral contra la Violencia de Género)*. 2005eko ekainak 28an argitaratua. URL helbidea: https://violenciagenero.igualdad.gob.es/profesionalesInvestigacion/juridico/protocolos/docs/Protocolo_Actuacion_Fuerzas_Cuerpos_Seguridad_Coordinacion_Organos_Judiciales.pdf

OSASUN, GIZARTE SEGURANTZA ETA BERDINTASUN MINISTERITZA. *Estrategia nacional para la erradicación de la violencia contra la mujer (2013 - 2016)*, argitalpen zentrua, URL helbidea: <https://violenciagenero.igualdad.gob.es/planActuacion/estrategiaNacional/docs/EstrategiaNacionalCastellano.pdf>

8/2015 Lege Organikoa, 2015eko uztailak 22ko, *Haurtzaro eta Nerabezaroaren babeserako sistema eraberritzen duena*. Estatuko Aldizkari Ofiziala, 175 zk. 2015eko uztailak 25ean, 61871-61889 orr. URL helbidea: <https://www.boe.es/eli/es/lo/2015/07/22/8>

4/2015 Legea, apirilak 27koa, *Delituaren Biktimaren Estatutuaren ingurukoa (2015)*. Estatuko Aldizkari Ofiziala, 101 zk., 2015eko urriak 28, <https://www.boe.es/eli/es/l/2015/04/27/4/con>

GOBERNU KONTSEILUA. *Consideraciones para una reforma de la ley de custodia compartida* (Consejo de Gobierno 06-10-2020). euskadi.eus URL helbidea:

<https://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/-/noticia/2020/consideraciones-reforma-ley-custodia-compartida-consejo-gobierno-06-10-2020/>

121/000022 Lege Organikoaren Proiektua, 2021eko apirilak 13koa. *Haurtzaro eta Nerabezaroaren babes Integralerako Lege Organikoaren Proiektuaren txostena*. Batzar Orokorretako Aldizkari ofizialean argitaratua. 22-3 zk. URL helbidea: https://www.congreso.es/public_oficiales/L14/CONG/BOCG/A/BOCG-14-A-22-3.PDF

b) DATU-BASEAK

Espainiako Gobernuko Atzerriko gaien, Europar Batasunaren eta Lankidetzako Ministeritza. (2018) Información para extranjeros. nacionalidad española ¿Cómo se adquiere la nacionalidad española? URL helbidea: <http://www.exteriores.gob.es/Portal/es/ServiciosAlCiudadano/InformacionParaExtranjeros/Paginas/Nacionalidad.aspx>

Espainiar Gobernuko Berdintasun eta Genero-indarkeriaren aurkako Estatuko Idazkaritza. (2020), Menores víctimas mortales en casos de violencia de género contra su madre en España. URL helbidea: <https://violenciagenero.igualdad.gob.es/violenciaEnCifras/victimasMortales/fichaMenores/home.htm>

European Institute for Gender Equality (EIGE). (2019) Gender Statistics Database, National sources of survey and administrative data on gender-based violence. Maps. URL helbidea: https://eige.europa.eu/gender-statistics/dgs/indicator/genvio_statcap__gbv_nat_statcap/map

European Institute for Gender Equality (EIGE). Gender Statistics Database. National sources of survey and administrative data on gender-based violence. URL helbidea: https://eige.europa.eu/gender-statistics/dgs/indicator/genvio_statcap__gbv_nat_statcap/datable

FRA, European Union Agency for fundamental rights (2015). Violence against women: an EU-wide survey, main results, 7.8 Adult women's children's exposure to violence in the family. Luxembourg: Publications Office of the European Union.

Estatistikako Institutu Nazionala (EIN), Autonomia Erkidego bakoitzeko biztanleria, 2020an. URL helbidea: <https://www.ine.es/jaxiT3/Datos.htm?t=2853>

Estatistikako Institutu Nazionala (EIN). Urteen arabera bataz besteko amatasunerako adina. 2018-2021 urteak. URL helbidea: <https://www.ine.es/jaxi/Datos.htm?path=/t20/p278/p03/2018-2033/idb/10/&file=01004.px>

Oficina del Alto Comisionado de las Naciones Unidas para los Derechos Humanos. Comité de los Derechos del Niño. Vigilancia del ejercicio de los derechos del niño. URL helbidea: <https://www2.ohchr.org/spanish/bodies/crc/>

Osasunaren Munduko Erakundea. Gender and COVID-19. Violence against women and children increases during lockdowns. 2020ko maiatzak 14. 1 orr. URL helbidea: <https://www.who.int/publications/i/item/gender-and-covid-19>

Osasunaren Munduko Erakundea. Violence against women. 2017ko azaroak 29. URL helbidea: <https://www.who.int/en/news-room/fact-sheets/detail/violence-against-women>

VI. JURISPRUDENTZIA BIBLIOGRAFIA

I. Nazioarte mailakoa

47/2012 Komunikazioa, *Dictamen del Comité para la Eliminación de la Discriminación contra la Mujer en virtud del Protocolo Facultativo de la Convención sobre la eliminación de todas las formas de discriminación contra la mujer* (58° período de sesiones) 2014ko uztailak 16an eman zuten Ebazpena.

NBEko EMAKUMEEN AURKAKO BEREIZKERIA EZABATZEKO BATZORDEA. *España sienta un precedente en el derecho internacional de los derechos humanos, afirman expertos de las Naciones Unidas en los derechos de la mujer*. Geneva, 2018ko azaroak 8. URL helbidea: <https://www.ohchr.org/SP/NewsEvents/Pages/DisplayNews.aspx?NewsID=23849&LangID=S>

II. Estatu mailakoa

PONTEVEDRAKO PROBINTZIA AUZITEGIA, 4. atala, Epaimahai bidezko epaiketa, 1325/2017 epaia, 2017ko uztailak 24an emandakoa.

ALMERIAKO PROBINTZIA AUZITEGIA, 2. atala, 2018ko ekainak 11an eman zuten Epaimahai bidezko 987/2018 epaia.

CORUÑAKO PROBINTZIA AUZITEGIA, 1. atala (Emakumeen aurkako indarkerian espezializatua), 2018ko urriak 16an eman zuten Epaimahai bidezko 1647/2018 epaia.

CADIZEKO PROBINTZIA AUZITEGIA, 8. atala, 2019ko azaroak 5ean eman zuten Epaimahai bidezko 350/2019 epaia.

MADRILGO PROBINTZIA AUZITEGIA, 26. atalak, 2019ko urriak 30ean eman zuten epaimahai bidezko 14460/2019 epaia.

VALENTZIAKO PROBINTZIA AUZITEGIA, 4. atala, Epaimahai bidezko 148/2019 prozedura, 584/19 epaia, 2019ko urriak 31an emandakoa.